

# Goienkaria

ASTELEHENKO

2009ko azaroaren 16a > Astelehena > VII. urtea > 254. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Pertsona bizitza osoan zehar ikastera bultzatzea da Bizikasiren helburua"

Miren Errasti  
Bizikasi > 08



**G2a**

Arantzazuko basilika zutik, eskolaniekin > 29

**ARRASATE**  
Saihesbideko lanak Gabonetarako bukatzeko asmoa daukate > 15

**BERGARA**  
Txapa Irratiaren 25. urteurreneko jai handia, hilaren 25ean > 16

**ERAKUSKETA**  
Bergararrek atzera egin zuten Serafin Esnaolaren irudiekin > 30

**POLITIKA** > HISTORIA

## Antzuolako EAJren 101. urteurrena

Liburua aurkeztu eta omenaldia egin zieten alderdiko kideei > 04

**EKONOMIA** > KRISIA

## Hilaren 25ean erabakiko du Fagorrek ordainsariaz

Abenduko aparteko ordainsariaren erdiari uko egitea edo ez bozkatzeko dute ezohiko batzarrean Fagor Taldeko 6.500 bazkideek; zortzi kooperatibetako bazkideei eragingo die. Krisiak bultzatu du Fagor proposamen hori egitera, eta aurrera eginen badu, 6.000.000 euro aurreztuko ditu Taldeak. > 06

**INGURUMENA** > AHT

## Udalatx zulatzen hasi dira

Egubakoitzean hasi ziren lanak, Udalatx azpitik AHTren tunela egiteko > 06



ELKARREKIN Umeek helduei erakutsi zieten zelan jolastu gura duten; eta guraso askok ikasteko ahalegina egin zuten.

JOSETXO ARANTZABAL

**AISIALDIA** > JOLASA

## Gurasolandia, helduek umeekin jolasten ikasiz

**GURASOENDAKO** Txatxilipurdik eta 'Guraso.com'-ek Arrasaten ipinitako jolasparkeak arrakasta izan du

**JOLASTEA** Helduen eta umeen arteko jolasa bultzatzea eta ahalbideratzea gura dute > 12

**FUTBOLA** > DERBIA

## Puntu banaketa Oñatin

Bergarak eta Aloñak gol bariko partidu aspergarria jokatu zuten. > 22-23

**AURKIBIDEA**

Debagoiena > 04-05  
Ekonomia > 06  
Auzoak > 07  
Elkarrizketa > 08  
Iritzia > 10  
Herriak > 11-20  
Kirola > 21-28  
Kultura > 29-33  
Saillkatuak > 34-35  
Denbora-pasak > 36  
Telebista-Irratia > 37  
Berri-zakua > 38-39

**JAIK** > SAN MILIXANAK


## Txerri-boda egin zuten Gatzagan

San Milixan ferixa egin zuten atzo Leintz Gatzagan, eta ohiko eskulagintzen azokaz gain, bes-telakoak izan ziren: bi txerri hilda hara eraman zituzten, azokan bertan zatitu, eta txorizoa eta odolosteak egin zituzten. > 12



Gatzagarrak pilotalekuaren alboan, jendaurrean txitxiak eginen.

J.ARANTZABAL




'Ate joka' antzezlanak ikusteko sarrerak. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera



**Miguel Angel Elkoroberezibarren  
'Serafin Esnaola, Herrigintzaren erretratua'  
liburua opari.  
Nahi?**

**ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedun bazara,  
deitu 943 08 10 50 zenbakira eta  
**LORTU LIBURUA DOAN\*****



\* Lehenengo hamar deiek bakarrik jasoko dute liburua.

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

GIZARTEA > NEKAZARITZA

# 'Etorri da San Martin eguna eta joan da txerria'

**AZAROTIK MARTXORA ARTE** San Martin egunarekin batera, eguaztenean txerria hiltzeko saioa hasi zen gurean; martxo hasiera arte iraungo du

**OHITURA BERRESKURATZEN** Bailaran txerriak hiltzen dituztenek diote gazteak garai bateko ohitura berreskuratzen ari direla; hain justu, etxerako hiltzea

**ETXEAN HAZI** Gehienetan bospasei kiloko txerria hartu eta urtebetez hazten dute baserrian; dena den, batzuek nahiago izaten dute animalia hazita erosi

MIRIAN BITERI > BERGARA

*Etorri da San Martin eguna eta joan da txerria.* Horixe dio esatera zaharrak. Garai batean, azaroaren 11, festa eguna zen baserrietan, egun hartan txerria hiltzeko saioa hasten zen-eta. Negua gertu zegoen eta hilabete gogorak eta luzeak pasatzeko baserriko despentsa bete egin behar zen.

Gaur egun festa eguna galdu egin da. Baina bailaran oraindik baserri askotan hiltzen da animalia. Gatzagako Sanjuanzahar baserriko Pantxi eta Maria Luisa Ibartzabal ahizpek, esaterako, bi txerri hiltzen dituzte urtero. Pantxik azaldu digu lehenengoa Gabonen ostean hiltzeko ohitura dutela.

Handik hiru bat astera bigarren txerria hiltzen dute Sanjuanzahar baserrian. Horren harira, Pantxik jakinarazi digu biak batera ezin dituztela egin, lan handiegia delako. Hala eta guztiz ere, animalia hiltzen duten bakoitzean etxekoen eta hainbat bizilagunen laguntza dute.

## ETXEAN HAZI

Baserri gehienetan bospasei kilo dituzten bi txerrikume erosi eta hamar hilabete eta urtebete bitartean hazten dituzte. Gehienak txerrikotik sartuta egoten dira eta baserriarrak egunero jana emateaz arduratzen dira; esaterako, barazkiak. Dena den, batzuek kanpora ere ateratzen dituzte. Animalia arazaren arabera, urtebetean 150 kilo inguruko txerriak lortzen dituzte baserriarrek.

Hori da ohikoena. Baina batzuek nahiago izaten dute txerria hazita dagoenean erosi. Oñatiko Azkontegi baserriko Karlos Igartuak esan digu Gabonen ostean Araba aldera joaten dela eta 120 kilo inguru pisatzen duen animalia eramaten duela etxera; handik egun gutxi batzuetara hiltzen dute: "Lehen etxean bertan hazten genuen eta hamar bat urte daramatzagu hazita ekartzen. Samurragoa da, ez du horrenbeste lanik ematen".

## URTERO, 60 TXERRI

Hiltzerakoan baserriarrek ederto dakite nora jo behar duten, Debagoienean txerria hiltzen duten hainbat lagun daude-eta; tartean, Iñaki Labaka bergararra eta Aretxabaletako Goroeta auzoan bizi den Jesus Mari Urkia daude. Lehenengoak 60 txerri



Txerria lepotik gantxo batekin heldu eta kortatik atera dute.

JOSETXO ARANTZABAL



Labana sartu diote eta jasotako odola mugitzen dabilta odolosteetarako.

J.A.



Txerria garoaz erre dute, ilea eta azala garbitzeko.

J.A.



Barrenak hustu egin dizkiote, hesteak-eta bereizteko.

J.A.

inguru hiltzen ditu urtero; bigarrenak, ostera, 20 bat.

Baserriz baserri ibiltzen lanpetuta egongo dira martxo hasiera arte. Bergararra, esaterako, joan den zapatuan, goizean Antzuolan eta Seguran izan zen eta arratsaldean, Bergaran.

Igartzen da horrelako lana egitera ohituta daudela eta txerriaren garrasiek ez dituztela hunkitzen: lehenengo, baserrian mahaia ipintzen dute eta jarraian, hiruzpalau lagun laguntzarekin, txerria hanketatik hartu eta mahaia gainean jartzen dute. Han dagoela, labana sartzen diote eta odola ateratzen diote, gero odolosteak egin ahal izateko. Jarraian, garoarekin behar bezala erre eta garbitu egiten dute. Mahaira igo behar da berriro tri-pakiak ateratzeko. Azkenik, ani-

malia hozten jartzen dute. Aurretik, baina, albaitariari txerri horren proba bidaltzen diote, osasun aldetik ondo dagoela eta jangarria dela baieztatzeko.

Normalean, egun bat egoten da kalean freskuran. Urkiak okela behar bezala hoztearen garrantzia azpimarratu du: "Orain presaka egiten da guztia. Txorizoak ere egun batetik bestera egiten dira. Baina oso inportantea da okela behar bezala hoztea, asenta dadin". Amaitzeko, gurina kendu eta okela zatitzen dute eta norberak nahi duena egiten du horrekin.

Ibartzabalek eta Igartuak diote gaur egun ondo aprobetxatzen dela animalia: solomoak, buztana, muturra, hankak, belarriak eta odola; buzkantzak eta odolosteak egiteko. Gainontzeko okelarekin, gehienetan txorizoak egi-

ten dira. Pantxiren arabera, "toki bakoitzeko okelak gustu berezia dauka. Nork berea dauka".

## ODOLOSTEAK ETA TXORIZOAK

Odolosteak txerria hil eta segituan hasten dira egiten. Kipula eta porrua behar bezala bigundu, gatza, pipermina eta oreganoa bota eta odolosteak egin. Arroza ere botatzen diote askotan. Txorizoak egiteko, ostera, okela egonkortu arte itxaron behar da.

Azken urteotan, txerria baserrian hazten dutenen kopuruak gora egin duela dio Labakak: "Garai baten jendeak laga egin zion txerria etxean hiltzeari. Baina jendea hasi da berriro baserrietan txerriak hazten". Urkia ere bat dator bergararrarekin: "Jende gaztea konturatu da etxean egindakoa bezalakorik ez dagoela. Askotan

esan da txerria jatea txarra dela; baina gutxi janez gero, ona da". Aretxabaletarrak, esaterako, hiru txerri ditu hazten etxean.

## ILARGIA ETA EGURALDIA

Txerria hiltzerakoan ilargia izaten dute kontuan. Pantxik hauxe dio: "Gabonen osteko lehen ilbeheran hiltzen dugu. Batzuetan ezinezkoa bada ere, ilargia kontuan izaten saiatzen gara, guztia hobeto lehortzen delako". Labaka ere ados dago Pantxirekin. Igartuak, ostera, ez du horren argi: "Esaten dute eragina duela. Etxean betidanik izan dugu kontuan eta nik ohiturarekin jarraitzen dut". Dena dela, aipatu du garrantzitsuena eguraldia dela: "Hotz egin behar du. Ilargiak ez dakit, baina eguraldiak eragin zuzena du".



Mezatik irteterakoan agurra egin zieten batutakoei.

JOSETXO ARANTZABAL



Joseba Egibar Simon Arrietaren margolanaren aurrean.

J.A.



Antzuolako udalbatzan esku hartu duten EAJko kideak eta beste herritar asko.

J.A.

Joseba Egibar >  
GBBko presidentea

## "Gogor lan egingo dugu, herrian sinisten dugulako"

I.B. &gt; ANTZUOLA

Joseba Egibar izan zen Antzuolan, eta gaurkotasuneko gaiak izan zituen berbagai.

EAJk 114 urte bete ditu. Eta orain ez du une onena bizi. Zelan ikusten duzu oraina eta geroa?

Alderdiak historia luzea du, eta garai oso desberdinak bizi eta garaitu ditu. Gobernuan egotea edo ez, koiunturak dira. Lan onena egiten saiatuko gara, baina ez gobernuan egotearen; herrian sinisten dugulako.

Zer iritzi daukazu Arabako Aldundian gertatukoaren gainean? Izango du ondoriorik Nafarroa Bai-en?

Ez da albiste ona, batez ere halako gobernu osatzeak denbora eman duelako. Hala ere, nik uste dut Aralarrek, aurrekontuez gain, beste gogoeta bat daukala esku artean. Nafarroa Bai formula egokiena da eta horrek ez du baldintzatuko.

Gehiago abertzalea batzerik ikusten duzu epe laburrean?

Guztiok etxeko-lanak egiten gabiltza, eta gutxiengoak hitzartzea ezinbestekoa da konstituzionalistek aintzat har gaitzaten; horren beldur dira.

POLITIKA &gt; HISTORIA

# EAJk bizi izandako historia, alderdikideekin partekatuta

Antzuolako EAJ sortu zenetik 101 urte bete direnean, liburua aurkeztu dute

IKER BARANDIARAN &gt; ANTZUOLA

Ospakizun berezia izan zen zapatukoa. Meza entzun ondoren, txistulariek agurra egin zieten batutakoei; eta jarraian herriaren historia zati bat batuz, ekitaldia egin zuten Olaranen.

Aretoa topera beteta zegoela, Iñigo Ramirez de Okarizek *Antzuolako EAJ-PNV Ehun urteko testuinguru politikoetan zehar* liburua aurkeztu eta bide batez alderdi horren 101 urteko historia laburbildu zuen Simon Arri-

taren margolana eta herritar asko lekuko zituela: uri batzorra eta jarraian batzokia sortu zutenekoa, margolanaren jatorria eta istorio gorabeheratsua, lehenengo alkatea, Lamarianoren lorpenak, trantsizioa...

ALDERDIKO PROTAGONISTAK

Horren ostean, Antzuolako udal taldeetan esku hartu duten EAJko kideak banan-banan deitu eta liburu bana eman zieten. Horren ardura izan zuen ekitaldira gonbidatutako Joseba Egibarrek, Gipuzkoako Buru Batzarreko presidentea. Eta Egibarrek berak hitza hartu zuen horren ostean, azpimarratzeko "errespetu handiena" merezi duten politikariak direla "herrietan lan egiten dutenak".

## LABen zerbitzu sozialen ibilbideak, Bergaran geldinean

LABek Euskal Herritik barrena bira egiten dihardu, eta herenegun, zapatua, Bergaran izan ziren. Helburua da kalitatezko zerbitzu sozialak lortzea.

LABen esanetan, ez dago hitzarmenik alor horietan eta premia handia dago honako alorretan esku hartzeko: hirugarren adinekoen egoitzak, adin txikienak, genero indarkeriaren biktimak eta etxeko asistentzia. Gaur kontzentrazioa egingo dute Donostian; eta 27an manifestazioa Gasteizen.



MOBILIZAZIOA &gt; LANGILEAK

## Gizadiko langileek protestak hasi dituzte

I.B. &gt; ARETXABALETA

Herenegun, zapatua, Aretxabaletan etxeko laguntza zerbitzua ematen duten Gizadi enpresako langileek kontzentrazioa egin zuten herriko plazaren parean. ELA sindikatuak bat egin zuen langileen protestarekin.

Kontzentrazio horrekin Gizadi enpresako langileek euren baldintzak hobetzeko mobilizazioekin hasia erabaki dute. Hala nola, Gizadiko langileek jakinarazi zuten "administrazioek aurrera eramaten dituzten pribatizazio

politiken ondorio latzak" jasaten dabilzala; eta azaldu zuten azpikontrataturako enpresa bateko langileak direnez, "ez daukatela ez konbeniorik eta ezta akordioerik ere".

SOLDATA PREKARIOAK

Horren ondorioz, salatu zuten soldata prekario eta jardunaldi ez normalizatuak dituztela.

Horregatik, honako hau azpimarratu zuten: "Lan baldintza duinak izanda, soilik bermatu daiteke gure nagusiek behar duten kalitatezko zerbitzu osoa".

EKONOMIA > MONDRAGON TALDEA

# Caprabok laster ekingo dio "kooperatibizazio prozesuari"

Supermerkatu kateko zuzendari nagusi Javier Amezagak aipatu du aurtengo urtea etekinekin amaitzea espero dutela



Caprabo supermerkatua.

GOIENKARIA

MIRIAN BITERI > BERGARA

Krisian gauden arren, Eroskiren Caprabo taldeko zuzendari nagusi Javier Amezagak espero du urtea etekinekin amaitzea. Kataluniako supermerkatu katearen aurtengo bilakaerarekin "baikor" azaldu da eta aipatu du salmentak sektore horretako batez bestekotik gora daudela. Hain justu, lau puntu gorago.

Aldi berean, laster "kooperatibizazio prozesua" martxan jartzeko asmoa dutela jakinarazi du, horretarako "berreste-data-

rik" ez badago ere. Horren harira, azpimarratu duenez, "hobe da prozesua ondo egitea, azkar egitea baino". Egun, horren gaineko diseinurik ez dutela onartu,

eta prozesua "aldaketa kulturalan" oinarrituta egongo dela esan du. Azkenik, iragarri du Caprabo Kataluniako kooperatiba handiena izango dela.

INGURUMENA > ENERGIA

# Jaurlaritza etxebizitzako leihoak aldatzeko laguntza gehiago ematea aztertzen dabil

Renove Plana joan den azaroaren 2an itxi zen, diru-laguntzak agortu zirelako

Guztira, 8.500 eskabide inguru aurkeztu dira

M.B. > BERGARA

Jaurlaritzaren ekimenez abiarazi zen eta Energiaren Euskal Erakundearen bidez martxan jarritako Leihoen Renove Plana joan den azaroaren 2an itxi zuten, diru-laguntzak jasotzeko 8.500 inguru eskabide izan ondoren.

Plana aurrera eramateko jarri zen hasierako aurrekontua gainditu da, eta guztira, laguntzetan, 7.453.610 euro emango dira. Hain justu ere, azaroaren 2an, aurrekontua amaitu izanaren ondo-

rioz bukatu zen epea eskabideak bideratzeko. Aurreikuspenen arabera, emango zaien batez besteko diru-laguntza 877 eurokoa izango da, energiaren aurrezpenaren ezaugarrien arabera.

**DATORREN URTEAN, GEHIAGO**

Leihoen Renove Planak izandako arrakasta ikusita, Jaurlaritza aztertzen ari da datorren urtean laguntza horiekin jarraitzea; maiatza edo ekaina aldera martxan jarriko litzateke berriro.

# Gurutze Gorriko Urrezko loterian saritua izan da oñatiarra

Gurutze Gorriak urtero antolatzen duen Urrezko Loterian eskuratu du saria oñatiar emakumezkoak. Jose Maria Mantecon Gurutze Gorriko kudeaketa arduradunak azaldu digunez, irabazleak saria dirutan jasotzea baino, nahiago izan du urrezko lingotea oroigarri moduan izatea; 25 gramoko pisua dauka horrek. Saritutako txartel zenbakia, 36.753 da. Guztira, saritutako zenbaki horren 80 txartel saldu dira. Gurutze Gorriko kudeaketa arduradunak zozketan parte hartu duten guztiei eskerrak eman gura izan dizkie.



GURUTZE GORRIA

etxeko leihotik



Iker Barandiaran > 'ibarandiaran@goiena.com'

# Argi gorriak eta ohitura zein premia aldaketak

Ni bizi naizen etxeko leihotik gauero argi gorri bat ikusten dut (eta ez naiz Bronxen bizi!), zuetako askok ere beste batzuk ikusiko dituzuen moduan. Argi horiek gure arteko komunikazioa irudikatzen dute eta baita zein errez engainatzen gaituzten ere.

Gogoan daukat sakelako telefonoak agertu zirenean kalean hala berba egiten egotea hain arrotza iruditzen zitzai-gula; neuri bai behintzat. Gerora, ez dago esaterik zertan bihurtu den. Badaukat oraindik halakorik inoiz eduki ez duen lagunik, baina esku baten hatzamarrekin kontu ditzaket guztiak. Luxu edo ezohiko erabilera zena benetako premia bihurtu da: ezin gara hori hartu gabe inora joan. Eta, aldi berean, uneoro kontrolatuta, lokalizatuta eta intimitatea kenduta egotera kondentatuta gaude. Eta, orain, telefonoa piztu ahala, deitu dizunari jakinarazten diote ordurako konektatuta zaudela. Falta zena!

Telefonia enpresek izugarritzko irabaziak dituzte, erakundeek ez dituztelako tarifak jaistera behartzen. Eta astean bukatu da poltsikoko telefonoa kontratu barik erabil-tzeko aukera. Lapurreta berri hori -diru gehiago enpresa horiendako- segurtasunak hala eskatuta ei da. Badakizue, segurtasuna askotan lotuta joaten da herritarren gaineko kontrol handiagoarekin eta herritarren euren poltsikoen zuletarekin...

> **Udalatx**

Astean Udalatx zulatzen hasi dira, aspaldi iragarritako AHTko lanekin aurrera egiteko. Egia izango da, horri esker, Arrasate aldean telefonoa hartzeko seinale hobea (kobertura) izango dela? Hori da jendeari axola diona?

> **Erlojuak**

Gaur egun denboraren menpe bizi gara, baina ez erlojuena. Hain zuzen ere, erloju eta linterna enpresak hasi dira telefonia konpainiak lehiakortasun faltuagatik salatzen. Hurrengo, agian, kalkulagailuen enpresak?

> **POLITIKA**

# Mondragon Taldeko enpresak defendatu ditu Rodolfo Aresek

Jaurlaritzako Barne sailburu Rodolfo Aresek Mondragon Taldea ETArekin lotzen duten "difamazio kanpainak" salatu zituen joan den astean, Madril: "Espainia mailan, hainbat kanpaina daude lanpostuak sortzeko eredugarriak, gizarte politika eta garapen ekonomikoaren aldeko apustuan eta Espainia mailan ezarpen oso garrantzitsua duten enpresak difamatzen dituztenak". Hain justu, Aresek Mondragon taldeko bi enpresa aipatu zituen: Fagor eta Eroski. Horren harira, gaineratu zuen "guztien errespetu osoa" merezi dutela.

EKONOMIA &gt; KRISIA

# Hilaren 25ean erabakiko du Fagorrek ordainsariaz

Abenduko aparteko ordainsariaren erdiari uko egitea edo ez bozkatuko dute ezohiko batzarrean

TXOMIN MADINA/LEIRE KORTABARRIA  
> ARRASATE

Azaroaren 25ean bozkatuko dute Fagor Taldeko 6.500 bazkideek Gabonetako aparteko ordainsariaren erdiari uko egin edo ez. Horretarako, ezohiko batzarra egingo dute, eta orduan bozkatu beharko dute taldea osatzen duten zortzi kooperatibetako bazkide guztiek.

Krisi egoera orokorrak bultzatu du Fagor proposamen hori egitera, eta, aurrera egiten badu, 6.000.000 euro aurreztuko ditu taldeak.

## LEHENENGO ALDIZ, DENONDAKO

Lehenengo aldiz proposatzen du Fagor Taldeak ekintza edo erabaki bateratu bat taldeko kooperatiba guztiendako. Iaz, Gabonetako aparteko ordainsari osoari uko egin zieten Fagor Taldeko hainbat kooperatibak, baina banan-banan proposatu eta bozkatu zuten. Lehenengoak Fagor Etxetresna Elektriako taldeko bazkideak izan ziren, eta gero beste batzuek ere bere egin zuten proposamena. Fagor Etxetresna Elek-

trikoetako bazkideek gehiengoz onartu zuten proposamena, eta helburu nagusia zen 58 urtetik gorako 128 bazkideren eta beste kooperatiba batzuetan kokatu ezin zitezkeen 55 urtetik gorako bazkideen aurre-erretiroa finantzatzea, beste helburu batzuen artean.

## HASIERAN, %100

Fagor Taldeko zuzendaritzak hasieran egindako proposamena zen bazkideek ez zezatela Gabonetako aparteko ordainsaririk kobratu, baina Kontseilu Sozialak ezezko borobila eman zion aukera horri. Taldeko zortzi kooperatiben iritzia jaso eta gero, orain bozkatuko duten proposamena egin zuen.

## BESTE NEURRI BATZUK

Krisiak eragina du Fagor Taldean, beste edozein enpresarengan bezala, eta horri aurre egiteko beste erabaki batzuk hartu izan ditu. Hala, maiatzean, lan aurrerakinak %8 murriztea erabaki zuten bazkideek, 2009ko apiriletik 2010eko martxora arteko epe-rako. Fagor Taldeak inoiz erabaki izan duen lan aurrerakin murrizketarik handiena da hori, eta batzarrean emandako botoen %56,4rekin onartu zen.

Erabaki hori azaltzerakoan, "krisia gainditu eta garapen kooperatiboa eta honek inguruan duen eragina sustatzen jarraitzeko konpromisoa" berretsi zuen Fagor Taldeak.

INGURUMENA

## Hasi dira Udalatx zulatzen, AHTrako

Egubakoitzean hasi ziren lanak Udalatx azpitik tunela egiteko, Gasteiz-Bilbo adarraren barruan

JULEN IRIONDO > ARRASATE

Egubakoitzean hasi ziren Abiadura Handiko Trenaren lanetan Udalatx azpitik tunela egiteko lanak. Hasi dira harkaitza zulatzen, Elorrio eta Arrasate arteko zatian.

Hegoaldeko sarbidea da zulatzen hasi direna. 3.160 metrorekin, Udalatxekoa izango da AHTren sareko tuneletan bigarren luzeena. Errail bikoitza izango du tunelak.

## 2012 HASIERARAKO

Gasteiz-Bilbo adarrean dago Arrasate-Elorrio zatia. 4.400 metro ditu, 3.600 lurpekoak. Zati horrek 33 hilabete eta erdiko exekuzio epea du. Martxoan hasi ziren lanak, eta aurreikuspenak betetzen badira, 2012 hasierarako amaituko dituzte. Espainiako Gobernuaren EAeko ordezkari Mikel Cabiecesek esan du Gasteiz-Bilbo adarrean 90 kilometroetatik 54tan hasi dituztela lanak.

Cabiecesek gogora ekarri ditu lanok ingurumenari egingo dioten kaltea gutxitzeko hartu dituzten neurriak: hala, tunelen erdialdean isuriak kanporatzeko sistemak jarriko dituztela eta isuri guztiak biltegi batera joango direla esan du.



Beharginak Fagor Garagartza lantegian.

ARTXIBOA

EKONOMIA &gt; BANKETXEAK

## Euskadiko Kutxak du kudeaketa kalitate handiena, ikerketa baten arabera

Stiga enpresak 105 finantza erakunde neurtu ditu, eta Mondragon Taldeko bankuari 10 puntutik 8,1 eman dizkio

L.K. > ARRASATE

Stiga kontsultariak egindako ikerketa baten arabera, Euskadiko Kutxa da Espainiako Estatuko finantza erakundeen artean kudeaketa kalitate onena duena. Hain

zuzen, 10etik 8,1 puntu lortu ditu Euskadiko Kutxak ebaluazio horretan. Horren berri ematen du *Estrategia Empresarial* aldizkariak. Bigarrena beste euskal erakunde bat da, Nafarroako Rural Kutxa, 7,9 punturekin.

Euskadiko Kutxako zuzendari orokor Elias Atutxak datuen berri eman zuen; "bikainak" zirela esan zuen, eta Euskadiko Kutxako "guztiok oso pozik" daukela esan zuen.

## ERREFERENTE BERE ARLOAN

Stiga kontsultariak Equos-RCB delako txostena egiten du, finan-

tza arloan erreferente dena, eta helburuetako bat da banketxeek ematen duten zerbitzuaren kalitatea neurtzea, hainbat ikuspuntu kontuan izanda: bulegoen kalitatea eta ekipamendua, bizkortasuna, kontratatu behar diren produktuen gaineko azalpenak, bezeroak egindako informazio eskaera bat erantzuteko zenbat denbora behar duten.

Ikerketan, 105 finantza erakunderen 6.300 bulegotik gora aintzat hartu zituen Stigak, eta 260 aldagaitik gora kontuan hartu zituen.

EKONOMIA &gt; NAZIOARTEA

## AEBetan kooperatibak sortuko ditu Mondragonek

Altzairugintzako langileen sindikatu bati lagunduko dio Arrasateko taldeak

L.K. > ARRASATE

Mondragon Korporazioak AEBetako sindikatu batekin elkarlana hasi du, Mondragon Taldeak kooperatibak sortuzan AEBetan eta Kanadan, taldeko oinarri kooperatibistak jarraituta. Lankidetzaz hitzarmena urriaren 27an egin

zuten United Steelworkers (USW) altzairugintzako langileen sindikatuak eta Mondragon International SAK.

## "PAUSO HISTORIKOA"

USWk "lehenengo pauso historiko" aitortu du elkarlan hori, "kooperatibak AEBetan eta Kanadan negozio eredu bideragarri bihurtzeko, lanpostu onak sortzeko, langileei indarra emateko eta komunitateei babesa emateko". Mondragon Korporazioak eta USWk manufaktura-industrian sortuko dituzte kooperatibak.

auzorik auzo

**LESEZARRI** > Oñatiko auzoa da Lesezarri. Arantzazurako bidean dagoen auzoa da eta Azkoagain futbol zelaia dago han. Herritik gertu egon arren, auzora oinez joateko bide egokirik ez dutela azaldu digute Lesezarriko auzotarrek.



Eukene Urtzelai, Lesezarriko San Esteban ermitaren aurrealdean.

A.E.

Eukene Urtzelai > Lesezarriko auzo-alkatea

## "Azkoagain berri dute netik ume asko dabil inguruan, baina baita auto asko ere"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Zañartu auzokoa da Eukene Urtzelai, baina azkeneko bederatzietan Lesezarri bizi da familiarekin. Bi urte egin ditu auzo-alkatearen laguntzaile; eta hil honetan bertan hartu du Urtzelai auzo-alkate kargua bi urterako.

**Biztanleei begiratuta, Lesezarriko auzoaren egoera ona dela esan daiteke.**

Auzoan 35 zenbaki daude; baserri guztietan ez da bizi jendea; gutxi gorabehera, sei etxetan ez da bizi inor. Herritik gertu dagoen auzoa izanda, ez dugu auzoa hutsik geratuko den kezkarik. Herritik gertuen dagoen auzoa izan daiteke Lesezarri.

**Hala ere, auzora oinez etortzeko bide egokirik ez duzuela diozue.**

Gertatzen dena da bidea oso txarra dela. Auto asko ibiltzen dira hemen, eta, gainera, abiadura handian. Horregatik, auzo herritik gertu egon arren, denok autoa hartzen dugu. Abiadura handian ibiltzen dira autoak, eta bidean ez dago argirik. Oinez etortzeko moduko bidea balego, etorriko ginatke, baina ez dago horrelakorik.

**Hain zuzen, hori da auzoaren kezka nagusia.**

Azkoagain konpondu dute netik, bide izkina guztia autoz

beteta izaten dugu. Gainera, ume pila bat etortzen dira Azkoagainera, eta hemen sarri gabiltzanok ikusten ditugu umeak auto artean, gurasoen zain... eta egunen baten zerbait pasa daiteke. Azkoagain berrizatu dute, baina non aparkatu behar da? Kexatu gara, baina ez digute erantzunik eman.

Goitik behera autoak oso agudo ibiltzen dira; hortaz, eskatu dugu abiadura murrizteko zerbait jartzea, eta baita argi gehiago jartzea ere.

**Orain, esku artean, elizaren konponketa duzue. Zer gertatzen da?**

Beste arazo bat auzoko eliza da. Eliza txintxinez josita dago. 1950ean konpondu zuten azkeneko, eta ordutik hona ezer egin gabe dago. Teilatua konpondu gura dugu, baina dirurik ez dago. Hortaz, dirua nondik lortuko dugun begira gabiltza orain.

**"San Esteban eliza txintxinez josita daukagu, eta konpondu egin gura dugu"**

**"50eko hamarkadan igeltsua egiten zen auzoan, Aloña azpitik ekarritako harriekin"**

Domekero ez da meza esaten, urtean bi aldiz bakarrik: San Esteban egunean eta urriko azkeneko aste bukaeran, San Krispin eta San Krispiniano egunean.

**Aloñaren magalean egonda, badago auzoan egiteko moduko ibilbiderik?**

Jendeak ohitura dauka Garagaltza auzotik igo, eta Kamamotik behera, Lesezarri goitik behera jaisteko. Bestalde, Aloñako mendiko igoera egiten denetik beherakoan korrikalariak hemendik jaisten direnez, auzo ezagun egin da. Lehen, jende gutxi sartzen zen auzora; orain, ostera, ezagutzera eman da auzo.

**Pertsonaia famaturik ez, baina lantegi oso ezagunak dituzue auzoan. Ez da hala?**

Auzo txikia dela kontuan izanda, lantegi ezagunak daude: Zahor, Betik, Moyua... eta artzainaren omenezko monumentua ere badago. Garai batean, artzaintxakur txapelketa auzoko zelaian egin zen.

**Egon da lanbide berezirik auzoan?**

50eko hamarkada inguruan, Aloña azpian meategiak zeudenez, igeltsua ateratzen zen handik. Harriak jaisten zituzten auzora, eta gero igeltsua egin. Auzotar askok lan egiten zuten igeltsua egiten.

ASTELEHENEN  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

### Azaroko zozketa

Sariak irabazteko

**HARPIDETU!**

Tel.: 943 08 10 50

[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Kuota: 20 euro

**SARRERAK**



Bidali AG ESPALOIA  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



**UMEENTZAKO LIBURUAK**



Bidali AG LIBURUAK  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



**SARRERAK**



Bidali AG BASKET  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



**ZIRA**



Bidali AG ZIRA  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



## SARI NAGUSIA

### IRAILA-AZAROA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG N011**  
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.  
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270  
Diamondville (533Mhz/512Kb).  
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).  
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.  
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.  
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3  
Netbook bermea.  
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



- Partikular eta enpesei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktua.

**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZA dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Bergarako Migel Altuna institutuan dago Bizikasi zerbitzua; publikoa eta doakoa da. Helburu nagusia pertsonen formazioan oinarrituta bizi kalitatea hobetzea da. 2006ko ikasturtean sortutako zerbitzua da; orduetik hona, hamaika ikastaro eta hitzaldi antolatu dituzte. Zerbitzuaren webgunea da [www.bizikasi.com](http://www.bizikasi.com) eta telefono zenbakia 943 76 93 94.

Miren Errasti > Bizikasi zerbitzuko bitartekaria

# "Pertsona bizitza osoan zehar ikastera bultzatzea da Bizikasiren helburua"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Ikastaro bat jaso gura duzula eta ez dakizula nora jo? Horretarako da, hain zuzen, Bizikasi. Bergarako Migel Altuna institutuan ematen dute zerbitzua orain dela lau urte-tik hona. Miren Errasti bitartekariak azalpenak eman dizkigu.

**Bizikasi zerbitzu publikoa eta doakoa da. Noiztik dago martxan?**

2006ko ikasturtean zehar jarri zen martxan zerbitzua. Eusko Jaurlaritzari eskatu genion zerbitzua martxan jartzeko, pertsonen integrazioa bultzatu, jendea ikastera animatu eta sartzeko helburuarekin.

Txertatze hori, batez ere, immigrantei, emakumei eta langabezian denbora luzea daraman jendeari zuzenduta dago. Denentzako zabalik dagoen zerbitzua da, baina batez ere kolektibo horiei.

**Pertsonen formazioan oinarrituta bizi kalitatea hobetzea da helburua?**

Bai, hala da. Nork bere premien arabera ikasi nahi duela edo lanerako behar duelako izan daiteke.

**Lau urte hauetan, zer-nolako erantzuna jaso duzue?**

Gora doan zerbitzua da. Lehenengo urtean webgunea diseinatu eta informazioa jaso genuen. Gerora, dirulaguntzak eskatu eta bailarako eragile ezberdinekin gauzak antolatzen hasi ginen. Ikastaroak, hitzaldiak, tailerak...

**Zuek Debagoiena mailan egiten duzue lan.**

Bai, Migel Altuna institutuan gaude, eta Debagoienarako lan egiten dugu. Bailara osorako zerbitzu publikoa da.

**Ze ikastaro mota da gehien eskatzen dizuetena?**

Orain arte antolatu izan dira sukaldaritza ikastaroak, joskintza, pertsona nagusiak zaindu, Angiozarren yoga ikastaroa jarri dugu aurten, informatika, marmelada eta likoreak egiten ikasteko ikastaroa... Denetik egin izan dugu, jendeak eskatzen duena.

**Debagoienean ikastaro mailan zegoen gabezia betetzen duzuela esan daiteke?**

Bai, baina argi daukagu dau-den ikastaroei ez diegula konpe-



Miren Errasti, Migel Altuna institutuko bulegoan.

A.E.

tentziarik egin behar. Zerbait antolatuta dagoenean hara bideratzen dugu jendea, baina kolektibo batek ezin badu zerbait egin, hutsunea dagoelako, hori betetzea da gure lana.

**Krisi garaian eskaera gehiago dagoela igarri duzue?**

Bai, igarri dugu eskaera igo egin dela. Kolektiboei dagokienez, esango nuke orain lehen baino etorkin gehiago etortzen direla informazioa jasotzera.

**Hona datorrena ofizio bat ikasi gura duelako dator?**

Ez dira lanerako ikasketa ofizialak; horretarako, ikastetxe homologatueta jo behar da. Hona norberaren zaletasun eta beharren arabera ikastaroak ikasi nahi dituztenak etortzen dira. Gero, lanerako balio baldin badie, oso ondo.

**Noren laguntza izaten duzue ikastaroak antolatzeko orduan?**

KRISIA

**"Krisi garaian gora egin du ikastaroak eta hitzaldiak eskatzen dituztenen kopuruak"**

KOLEKTIBOAK

**"Guztientzat da, baina batez ere etorkin, emakume eta langabeei zuzenduta dago"**

EGINBEHARRA

**"Ikastaroa eskatzen digutenean, halakorik dagoen begiratu eta antolatu egiten dugu"**

Norbait hona datorrenean ikastaro bat eskatzera, begiratu dugu ea horrelako ikastarorik badagoen inguruan. Horrelakorik ez badago, udalekin eta gai horretan diharduten elkarteekin elkartzeko gara ikastaroa antolatzeko. Premiak aztertzen dira eta zer antola daitekeen pentsatu, ondoren. Informazio hori zabalitzen dugu, nahi duenak ikastaroan izena eman dezan.

**Nortzuek eskatzen dituzte ikastaroak?**

Asko dira etxeakoandreak. Bestalde, ikastaroaren arabera, gizon askok parte hartzen dute. Esan behar da, baina, gizon atzerriarrak izaten direla normalean; hau da, ez bertako gizonak. Hala ere, emakumezkoak gehiago dira.

**Bizitza osoan zehar ikastea da helburua; hortaz, ez da adin mugarik egongo?**

Zerbitzuaren helburua bizitza osoan zehar ikastea da. Horri

BOZI jarduerak deitzen diogu; eta Bizikasik antolatutakoak edo parte hartutakoak dira.

Helburu nagusi horren barruan hiru oinarri daude: pertsonak bizitza osoan zehar ikastera bultzatzea, pertsonen parte-hartze aktiboa sustatzea eta garpentzen pertsonal zein soziala lortzea.

**Orain arte, norbaitek ikastaro bat antolatu gura bazuen ze zailtasun izaten zituen dena lotzeko?**

Zailtasunak egoten dira, batez ere, materiala lortzeko orduan. Adibidez, sukaldaritza ikastaro bat antolatzeko, zaila izaten da sukaldaria lortzea. Eta, prozesu horretan, hori da nire lana: bitartekari lana egitea. Baita informazio hori hedabideetara bidaltzea ere; eta, kasua baldin bada, diruz laguntzea.

**Aurrera begira, zenbat proiektu dituzue esku artean?**

Asko. Datorren urteko maiatzera arte ditugu ikastaroak.



Kutxa Auto Asegurua

# Orain baditugu auto-asegurua. Bila ibili beharrik ez.

Ongi etorri **Kutxa Auto Asegurua**. Diruaz gainera, buruhaustea aurrezten dizkizun aseguruak. Estaldura zabalak, zerbitzu-kalitatea eta prezio ona ondoen konbinatzen dituen eskaintza. **Liberty Seguros** etxearen bermearekin. Eta, jakina, **kutxa**ren konfiantzarekin.

Zatoz gu ikustera, eta xehetasun guztien berri emango dizugu.



zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

## kale inkesta

## A Gripearearen kontrako txertoa ematen hasiko dira martitzenean; hartzeko asmorik al duzu?



**Marijo Martinez**  
Langilea  
Bergara

Ez dugu txertorik hartuko. Nire alabak, Liernik, sei urte ditu eta A gripea izan du; bi egunetan sukarrak altua izan zuen, baina nahiko arina izan zen. Kontu honekin alarma gehiegi sortu dutela uste dut nik.



**Yves Roos**  
Langilea  
Bergara

Bai, txertoa hartuko dut, baina, batez ere, nire lanagatik; dentista naiz eta uste dut datorren astean bertan lanean txertoa ipini behar digutela. Dena dela, nire lanagatik ez balitz, beharbada ez nuke hartuko.



**Cecilia Agirre**  
Erretiratua  
Bergara

Diabetea daukat eta horregatik uste dut txertoa hartu beharra daukadan. Badakit aste honetan hasiko dela kanpainak. Anbulatoriora deituko dut txanda hartzeko. Gripe arruntarena ere hartzen dut.



**Joxe Mari Laskurain**  
Erretiratua  
Bergara

Odol emalea naiz eta ezin dut txertorik hartu; gripe arruntarena ere ez dut hartzen. Dena dela, uste dut alarma gehiegi sortu dela kontu honekin. Benidormtik iritsi berria naiz eta han sekulako psikosia zegoen.

## irakurlearen txokoa

943 25 05 05  
goienkaria@goiena.com

## ARRASATE

## &gt; Butano bonbona, errekarra

Irakurle batek egoera harrigarria deskribatu zigun joan den astean. Gezurra badirudi ere, gurekin harremanetan jarri denak butano bonbona bat ikusi zuen Aramaio errekan, joan den martitzenean. Errekan zikinkeria ikustea berria ez bada ere, ez da ohikoa butano bonbonak ikustea. Herritarrek, bada, "batzuen utzikeria" salatu gura izan du.

## BERGARA

## &gt; Ibargarai kaleko zirkulazioa, 'kaosa'

Egunero Bergarara datorren Jose Maria Altuna institutuko ikasle batek adierazi digunez, Ibargarai kaleko zirkulazioa "kaosa" da. Hainbat ibilgailu bigarren ilaran egoten dira eta horrek, ikasleak dioenez, "astuna eta arriskutsua" egiten du bertako zirkulazioa.

## ARRASATE

## &gt; Zorionak gaztetxeari, 'ekimen interesgarriak' egiteagatik

Arrasateko gaztetxea aspaldi dabil herriko gazteengana heldu guran. Horretarako hainbat ekintza egiten dituzte. Bada, oraingoan hain gaztea ez den arrasatear batek gaztetxea zoriondu gura du ahalegin horretan antolatzen diren ekimen "interesgarriak" antolatzeagatik. Ekimen horietako bat joan den egubakoitzean bertan hasi ziren mamitzen. *Lana doan* bataiatu dute eta gura duenak hainbat lan egiteko materiala eta argibideak izango ditu gaztetxean. Ea, bada, gazteek aukera aprobetxatzen duten...

## ustek uste

Arritxu Barruso

## Barnetegien inguruan...

**P**asa den zapatuan Arantzazuko basilikan izan nintzen Easo, Escorial eta Montserrat eskolaniak emandako kontzertuan. Onartu behar dut ezusteko ederra hartu nuela. Ez naiz horrelako kontuetan aditua, baina gauza bakarra dakit: gustura asko egon nintzela gaztetxoak entzuten korotik, eta amaierako kantuek hunkitu egin nindutela.

Baina, pena apur bat ere sentitu nuen; ezin ukatu. Escorial eta Montserrat eskolaniak mutiko horiek guztiak barnetegietan bizi dira eta benetan gogorra iruditzen zait hori. Gogorra eta ulertezina. Nik neuk ez nuke horrelakorik nahi nire seme-alabendako. Askatasun falta etortzen zait burura, diziplina asko eta gizartearekin kontaktu gutxi. Barnetegien nire gurasoen garaiko kontua zela uste nuen nik, baina aste bukaera honetan ikusi dut ezetz. Bai, egia da, pena eman didate ume horiek.

## zorroztailea



Elena Laka

## Elizan agintea dutenak

"Aitaren etxera bidean. Donostiako gotzain izateko Jose Ignacio Munillaren hautagaitza indar hartzen ari da. Rouco Varela babesa du Munillak. Gipuzkoako kristau komunitateak kezka itzaroten du izendapen ofiziala."

Berria > 2009-11-14



**X**XI. mendean sartuta gauden honetan ez dakit gizartearen zenbati inporta zaion Gipuzkoako Elizak zein duen buru. Kristau terminologia erabiliz, esan daiteke artaldeak artalde izaten segitzen duela, baina artzainez eta bordaz aldatu duela. Adibidez, fedekideekin elizetan elkartu ordez, merkatalgunetan batzen gara bestelako jainkoak gurtzeko, eta elkarrekin otoitz egin ordez, futbol-estadioetara jotzen dugu fede amankomun eta identitate bila. Apaizen ordez, psikologoak aukeratu ditugu, zeren mende honetako Estatua laiko da, morala sekularra, eta herritarra, agnostikoa.

Hala ere, nahiz eta Elizaren boterea gutxitu egin den gizartearen aurreko garaian aldean, oraindik ere erakundeak eragina dauka. Eta nahiz eta garairik garaienean ez egon, badago jende fededuna, kristau komunitateak badauka bizitza gure herrietan. Kristau jendeak egunero egiten du lan erakundearen barruan edo aldirietan, badaude herritarrek beren burua kristautzat dutenak eta Eliza osatu nahi dutenak. Eliza, kristau ikasbide hartan erakutsi zigitenez, kristau guztiak osatzen dutelako. Noizean behin gogoratu beharreko kontzeptua hau, azkenaldian ematen baitu Eliza komunikabideetan agertzen diren elizburuak baino ez direla. Goitik izendatuak, hautaketa demokratikoarekin inolako zerikusirik ez daukaten elizgizon agintari agintezaleek komunikabideetako leihoak baliatu dituzte mezurik atzerakoenak, mehatxu ilunenak zabaltzeko. Indartsu ikusten dute beraien burua eta Elizan sotana beltzak, lepegain zuriak eta urrezko katedun gurutzek baino agintzen ez dutela agertu nahi dute. Eta ez da itxura hutsezko kontu bat.

Jabetzen ote dira kolore beltzak iluntasuna adierazten duela, urreak, aberastasuna, gorainoko itxurak ito egiten duela, mehatxuak, bildu baino uxatu, eta kontzientziak manipulatzeko saiakera, dela Radio Mariaren bitartez, dela beste edozerren bitartez, oso nabarmen geratzen dela askatzaile sortu zen kristautasunean. Hori ez ote dute helburu Munilla moduko elizgizon agintari beltz, estu eta urre kolorekoek.

"Askotan ahazten zaigu, baina Eliza kristau guztiak osatzen dute"

"Jabetzen dira beltzak iluntasuna adierazten duela?"

## Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Iker Barandiaran Erredakzioa Mireia Bikuña, Arritxu Barruso, Jokin Bereziartua Oinarritzko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Maria Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK  
ARRASATE 20500 Oñalora Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAK  
ARETXABALETAK 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale



ASTELEHENKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

## Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19  
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> **ARRASATE**  
Saihesbideko lanak Gabonetarako amaituta egongo direla jakinarazi du Aldundiak > 15



> **BERGARA**  
Txapa Irratiaren 25. urteurreneko jaia handia irailaren 21ean egingo dute > 16



> **ESKORIATZA**  
Kubako Zinema Pobrearen Nazioarteko filmak ikusi ahalko dira gaurtik, astelehena, hasita > 19



Lehen Panaderokua zegoen eraikina zaharberritzeko lanetan "ahalik eta erraztasun gehien" eman gura die Elgetako Udalak bizilagunei.

JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA > HIRIGINTZA

## Herriak zeresan zuzena izango du Elgeta hobetzea helburu duen planean

### PLAN BERRIA

Udalak proposatutako herri guneko plan berria abenduaren 16ra arte kontsulta daiteke

### OBRA AIPAGARRIAK

Erdiguneko etxeak berritu eta aparkaleku bat egokitzea gura dute, besteak beste

JOKIN BEREZIARTUA > ELGETA

"Lehen planeamendua zaharkituta geratu zen, eta plan berri baten beharra zegoen". Iban Retolaza hirigintza zinegotziaren hitzak dira, Elgetako herri guneko planeamendu berriaren –PER moduan ere da ezaguna– beharra azaltzen. Joan den azaroaren 4an egin zuten aurkezpena eta interes handia piztu zuen herritarren artean. *Elgeta denon artian* ekimenaren baitan dago.

Retolazak adierazi duenez, "erdiguneko lokal hutsen kopuru altuak eta eraikin esanguratsuen zaharberritzearen premiak" eragin dute plan berria egitea.

#### 'ERAIKIN ESANGURATSUEKIN, ZER?'

Elgetako eraikin esanguratsu batzuetako bizilagunek kezka agertu zuten, euren etxeen zaharberritzeak suposatuko zukeen gas-

tua dela-eta. Izan ere, obra "handiak eta garestiak" dira. Edozelan ere, Udalaren asmoa da, Retolazak dioenez, bizilagunei "ahalik eta erraztasun gehien" ematea. Finean, halako lanekin "denok irabazten irtetea" gura dute.

#### HIRU OBRA NAGUSI

Plan berrian hiru obra dira Udalaren proposamenen artean nabarmentzen direnak: erdiguneko etxebizitzaren berritzea, aparkaleku bat egokitzea eta babes ofizialeko etxebizitza bloke bi eraikitzea. Erdiguneko etxebizitzak berritzeaz gain, hutsik dauden eta gutxieneko baldintzak betetzen dituzten garaje eta ganbaretan etxebizitzak egitea ere gura dute.

Bestalde, aparkalekuari dagokionez, Zabala Hermanos lantokiaren ondoko lursailean aparkaleku bat egokitzeko

asmoa ere badago. Aipatu eremua ez zen herri guneko plana zaharraren barruan sartzen; oraingoan Udalak eremua planaren barruan sartzeko erabakia hartu du. Lurrazpiko aparkalekuak egitea aurreikusten dute, eta pribatuak izango lirateke. Asmoa da lur gainean egokitu-ko liratekeen aparkalekuak

ESANAK

**"Bizilagunei ahalik eta erraztasun gehien ematea gura dugu, eta halako lanekin denok irabazten irtetea"**

Iban Retolaza > Hirigintza zineg.

publikoak izatea. Eta azkenik, Malape etxea bota eta bertan babes ofizialeko etxeak –tasatuak izango lirateke– eraikitzea proposatu du Udalak.

#### PROZESU LUZEA

Herri guneko planeamendu berrian aurreikusten diren obrak martxan hasteko, baina, prozesu luzea dago oraindik. Herritarrek plana kontsulta dezakete abenduaren 16ra arte, eta euren kezka, iradokizun edota iritzia helarazi. Izan ere, Udalak planari izaera parte-hartzailea eman gura izan dio hasieratik.

Hortaz, abenduan Udalak ekarpenen azterketa egin ostean, otsailean hasiko litzateke planaren hasierako onarpenera. Eta prozesua espero moduan badao, uztailean arte ez da oraindik behin betiko onarpenera egongo.



Urtero moduan, Sorginak emakume elkartekoez taloak egin zituzten pilotalekuko azokan.

JOSETXO ARANTZABAL



Auzotarrek zatitu zuten txerria, eta txorizoa eta odolosteak egin zituzten. J.A.



Askotariko eskulagintza postuak jarri zituzten; argazkian, tailarena. J.A.

LEINTZ GATZAGA &gt; SAN MILIXANAK

# Txerri-bodaren aspaldiko ohitura erakutsi zuten ferixan

Bide batez, euskal ohiturak berreskuratzen ahaleginu dira

IKER BARANDIARAN > LEINTZ GATZAGA Gatzagarrek zaindari dute San Milixan eta haren omenez azoka egiten dute urtero. Herri txikia, baina ekimentsua da Gatzaga; eta hala, herritar asko lanean

jarrita, ekimen polita borobiltzen dute. Eskulagintza feriak hamazazpigarren edizioa bete du aurtengoan eta 15 postu jarri zituzten pilotalekuan. Han forja, egurra, umeen jolasak, musika

instrumentuak, pilotak, bitxiak, kaikuak eta beste egiten ikusteko eta erosteko aukera izan zen.

Horrez gain, urteroko ohiturari jarraituta, Sorginak emakume elkartekoez talo saltokia jarri

zuten Basatxarri izendapena duten hirugiharra eta txistorra erabilia.

## TXERRIA, PROTAGONISTA

Orain dela urte batzuk txondorra egin zuten moduan, oraingoa txerri-boda egin zuten. Hala, 250 eta 150 kilogramoko bi txerri hilda eraman zituzten Gatzagara, eta han hainbat auzotarrek zatitu eta jendeari erakutsi zioten txerriari zer etekin atera. Emakume batzuek odolosteak egin zituzten eta gizonezkoek txorizoa. Jakin-min handia piztu zuen ekimenak.



JONE INUNTZIAGA

ARAMAIO &gt; JAIK

## Gantzagan, euri eta hotz bariko jai arrakastatsua ospatu zituzten

Auzotarrek ez daukate gogoan eguraldia alde izandako jairik, baina aurten hala gertatu da, eta jende askok esku hartu du. Zapatu goizean izan zen jende gutxien, baina gerora ez dute atsedena hartzeko aukerarik izan, eta zapatu gauean dantzaldian jende ugari egon zen; goizaldeko zaparradak etxeratu zituen azkenak. Patata tortilla txapelketako irabazleak Amaia Calderon eta Manolo Garcia izan ziren. Karta jokoak, kantu bazkariak, kontzertua... ere izan ziren.

ARETXABALETA &gt; ODOLOSTE EGUNA

# UDAk denboraldiko bigarren gastronomia ekitaldia egin zuen

Prestatutako odoloste guztiak bukatu eta herritarrek gehiagoren gogoz gelditu ziren; oso goxoak zeuden, ukitu pikantearekin



Jende asko batu zen odolosten usainera.

MIRARI ALTUBE

I.B. &gt; ARETXABALETA

UDAk herrian hainbat ekimen egiten dihardu aspaldian. Hala, bide batez, taldearendako diru pixka bat batu eta herrian giroa sortzen dute. Lehenengoan txahala erre zuten; oraingoa, odolosteak prestatu dituzte; eta ekainean Garagardo festa egingo dute.

Imanol harakinak hartu zuen odolosteak prestatzeko lana eta herritarrek oso gustura jan zituzten; ukitu pikantea zuten eta oso onak zeuden.

## 200 ODOLOSTE

Bi ordutan janaria bukatu zen eta kopurua ez zen inondik ere makala izan: 200 odoloste eta 10 kilogramo txistorra, hain zuzen ere. Horretan zerikusia izango zuen, baita ere, zapatu iluntzeko eguraldi onak. Bestalde, UDAkoez gogoratu zuten Gabonetako loteria dagoeneko salgai dutela.

ARRASATE > GURASOLANDIA

## Ikusle izatetik parte hartzera, gurasoek ondo erantzun dute

Txatxilipurdi 'oso pozik' dago gurasoendako jolasparkeak helburua 'erabat' bete duelako

**JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE**  
Gurasolandiak ez du aurrekaririk; eta, beraz, ez da erraza balorazioa egitea. Baina Txatxilipurdik antolatatu zuten ekimenak gurasoen partetik erantzun ona izan zuela lasai asko baieztatu daiteke. Izan ere, Egoitz Larrañaga Txatxilipurdiko kideak jakinarazi duenez, "oso pozik gaude, ekimenaren helburua erabat bete delako".

Bereziki gurasoendako izan zen Uarkapen jarri zen jolas parkea, eta gurasoa ikusle izatetik parte hartzaile izatera

pasatzea zuen helburu. Hau da, aisialdiko haur eta helduen arteko harremana sustatzea, guraso eta seme alaben arteko hizkuntza eta gaitasunen transmisioan lagunduz. Bada, lortu dute; eta lehenengoan, gainera.

**'ESPERO DUGU AZKENA EZ IZATEA'**  
Goizez eta arratsalde, ondo pasatzeko aukera zabala izan zen Uarkapeko frontoian.

Lehen Gurasolandia izan da, baina Larrañagak dioenez, "espero dugu azkena ez izatea". Datorren urtera arte, beraz.



Haurrek eta helduek batera jolastu zuten ludotekan.

JOSETXO ARANTZABAL



Umeez, noski, primeran pasatu zuten.

J.A.

ARRASATE > TXATXILIPURDI

## Erdigunea piztu, eta hutsunea bete

Txatxilipurdik antolatuta, *Erdigunea piztu* deritzon ekimena egin zuten zapatuan. Aste bukaeretan nerabeendako aisian Arrasatek duen hutsunea betetzeko asmoz, altxorraren bila erraldoia egin zuten. Guztira 80 neska mutikok hartu zuten parte eta zortzi frogak gaudituz behar izan zituzten: Wii kontsolan lehiatzea, tirolina proba, herri probak...

Antolatzaileek adierazi dutenez, "arrakasta borobila" izan zen, eta neska mutikoen primeran pasa zuten. Altxorraren bila amaitu ostean, kontzertua izan zen Biteri plazan -irudian-. Azken orduko arazoak direla medio, ezin izan zuen Akustik Covers band taldeak jo eta euren ordez, Aggressive Combat taldea igo zen agertokira.



KOLDO CARRILLO

OÑATI > SAN MARTIN ASTEA

## 250 lagun, ospakizun asteari amaiera emateko bazkarian

Ekintzez jositako San Martin astearen ostean, urteroko bazkaria egin zuten atzo; Udaleko gizarte zerbitzuetako ordezkariak ez zioten hitzorduari hutsik egin

**J.B. > OÑATI**

San Martin egoitza jendez lepo izan zen zapatuan. Ospakizunez jositako asteari amaiera emateko bazkarian, guztira 250 lagun inguru bildu ziren mahaiaren bueltan.

Aipatu bazkaria urteroko zita da hainbat oñatirrendako. Izan ere, egoiliarrek bina senide gonbidatzeko baimena izaten dute. Giro aparta izan zen nagusi baz-



Ikasle zein gurasoek gustura jan zituzten gaztaina erreak.

JOSETXO ARANTZABAL

karian, eta bazkalosteko dantzaldian hainbat izan ziren aulkitik altxatu eta gorputza mugitzera ausartu zirenak.

**UDALAREN ORDEZKARITZA**  
Bestalde, Udaleko gizarte zerbitzuetako ordezkariak ere ospakizunean esku hartu zuten.

**LENIZ**  
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 31 45

ZIENTZIA &gt; IKERKETA TEKNOLOGIKOA

# Teknologia txikiekin lan egiteko laborategi berria zabalduko du Ikerlanek

Gaur egingo dute inaugurazio ekitaldia (11:00); ordezkari-tza zabala izango da bertan

Garaia Gunea ikerkuntza zentroan egongo da laborategia, LKS enpresaren alboan

**JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE**  
Ikerlan ikerketa teknologikoen zentroak beste aurrerapauso bat emango du ikerkuntzaren alorrean. Izan ere, Arrasateko enpresak gaur bertan inauguratuko du teknologia txikiekin –nanoteknologia deritzona– lan egiteko laborategi berria. Hala, beste zentro bat izango dute enpresari balio erantsia emate dioten produktu berritzaileak egiteko; izan ere, hori da, hein handi baten, Ikerlanek bere sorreratik –1974– ezarri zuen helburuetako bat.

Laborategi berria zabaltzeak CIC Microgune enpresarendako –enpresa horren barruan aurki-

tzen da Ikerlan–Gipuzkoan ikerketa teknologikoko lidergoa sendotzea dakar.

## SEKTORE 'HELDUEI' BEGIRA

Gaur zabalduko den laborategi berrian egingo diren ikerketak sektore helduei begira jarriko dira. Hau da, automobilgintzan, etxetresna elektrikoetan eta makina-erremintan inbertituko da bereziki. Edozelan ere, gero eta pisu handiagoa hartzen ari diren beste sektore batzuetan inbertitzeko asmoa ere badago. Besteak beste, osasuna, elikatzeko-segurtasuna eta ingurumena dira horietako batzuk.

## TEKNOLOGIARIK PUNTAKOENA

Inbertsio aipagarria ekarri du laborategi berriak. Izan ere, gutxira sei milioi euro baino gehiago behar izan dira egoitza berria eraikitzeko.

Egoitza 5.000 metro koadro hartzen dituen lursailaren gainean altxatu dute eta horietatik 1.380 metro karratu zuzenduko dira ikerketa instalazioetarako. Eta Ikerlanek prentsa ohar baten bidez jakinarazi duenez, azpiegitura osoaren "bihotza" 300 metro koadro inguru izango dituen "areto zuria" izango da. Aipatu aretoan, diotenez, azken belaunaldiko ekipamendu zientifikoa ipini dute. Horren adibide da Espainian bakarra izango den lau lurruntze-iturri ezberdinekin hornitutako atmosfera-kamera bat. Puntako teknologia, beraz.

## ORDEZKARITZA ZABALA

Esandako moduan, gaur izango da Ikerlaneko laborategi berriaren inaugurazio ekitaldia, 11:00etan. Hala, laborategiari bisita egingo du ekitaldira gonbidatu duten ordezkari-tza zabalak. Izan ere, besteak beste,

Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusi Markel Olano, Espainiako Zientzia eta Berrikuntza ministro Carlos Martinez, Mondragon taldeko presidente Jose Mari Aldekoa eta Ikerlaneko presidente Javier Mendigutxia izango dira ekitaldian.

DATUA

6

## MILIOI EURO BAINO GEHIAGO

Inbertsio handia egin dute Ikerlanen laborategi berrian. Gutxira sei milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia txikiekin lan egiteko laborategian.

1.380

METRO KOADRO

5.000 metro koadroko lursailaren gainean eraiki dute egoitza. Horietatik 1.380 metro koadro zuzenduko dira ikerketa zentrorako.

KULTURA &gt; AED

# Bederatzi talde, disko bat eta euskara xede

Egubakoitzean, azaroak 20, egingo da AEDren 25. urteurreneko diskoaren aurkezpen ekitaldia

Gaztetxean izango da jaia, 19:00etan hasita; musikaririk, umoreririk eta jatekorik ez da faltako

J.B. &gt; ARRASATE

AEDren 25. urteurrena zeresana ari da ematen oraindik. Euskara elkarte aitzindariak iaz bete zuen mende laurdena eta urte osoan zehar egin zituzten hain urtemuga berezia ospatzeko ekitaldiak. Hala ere, iaz abiarazitako ekimen batek orain eman du fruitua: AEDren 25. urteurreneko diskoa, hain zuzen.

Hasieran 11 taldek grabatu behar zuten arren –azken orduko arazoek zenbait talderen parte-hartzea ekidin dute–, azkenean herriko bederatzi taldek hartu dute parte. Diskoa atzerapenarekin dator, ekaineko kalean egon behar zuen-eta. Atzerapenak, baina, ez du eten proiektua. Diskoaren helburua garbia da: euskara gazteengana musikaren bidez helaraztea. Kalean da salgai dagoeneko, AEDren egoitza eta herriko zenbait tabernatan. Prezio sinbolikoa jarri diote diskoari: bost euro.

**ASKOTARIKO ESTILOAK, EUSKARAZ**  
Hortaz, AEDren 25. urteurreneko diskoak merezi duen aurkezpen jaia izango du. Esandako moduan, Arrasateko bederatzi

musika taldek hartu dute parte proiektuan. Hauexek dira euren musikaz kolaboratu duten Arrasateko taldeak: Gose, The Convicts, Ain\_1, Foxy Boxxi, Haitzama, The 5 Twisters, Muskaria, Ozen eta Los Galerna. Talde guztiek euskaraz abestu dute disko horretan eta batzuek, gainera, euskara aukeratu dute gai. Talde batzuek euren kabuz grabatutako abestia sartu dute diskoan eta beste batzuek, berriz, Arrasateko Shot! estudioan grabatu dute kantua.

Ekimenean parte hartzea erabaki duten taldeen artean estilo aniztasuna da nagusi. Eta punka, rocka, surfa ala elektronikoa izan, guztiek euskaraz abestu dute.

## JAI BEREZIA, DOAN

Egubakoitzean, hilak 20, egingo da diskoaren aurkezpen jaia, gaztetxean. Azkaiter Pelox musikagile eta gitarrak-jole bergararrak gidatuko du emanaldia, ohikoak dituen musika saio umoretsuekin. Diskoa erosteko aukera izango da, noski. Eta ez hori bakarrik, jatekorik ez da faltako. Sarrera doakoa izango da.



Azkaiter Pelox gonbidatu du AEDK diskoaren aurkezpena.

GOIENKARIA

BESTELAKO EKINTZAK

## Osasunaren eta hezkuntzaren gaineko hitzaldi zikloak asteen, AEDren eskutik

AEDren diskoaren aurkezpen jaiak gain, euskara elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu aste honetarako. Gaur bertan, *Gure osasuna gure ondasuna* lelo duen hitzaldi zikloari emango zaio hasiera. Hiru hitzaldi izango dira. Lehena, gaur, arrasatearren osasunak azken 25 urteotan izan duen bilakaera eta egungo egoera izango du hizpide. Hizlaria Iñaki Peña Debagoieneko ospitaleko sendagilea izango da. Bigarren hitzaldia bihar izango da eta langileen osasuna izango du berbagai Jesus Uzquidun Langile Komitueko lan osasun eta ingurumen idazkariak. Osasunaren inguruko hitzaldi zikloari amaiera emateko Joseba Bidaurrezaga mediku higienistak medikuntza naturistaren eta higienismoaren gaineko hitzaldia egingo du. Hitzaldi guztiak Kulturaten izango dira, 18:30ean.

Bestalde, eguaztenean, euskaraz ez dakiten gurasoendako hitzaldia egingo du Iñaki Eizmendik. Bertan, seme-alabei etxerako lanak egiten nola lagun diezaieketen irakatsiko die Eizmendik. San Andres parrokiako lokaletan izango da, 18:00etan.

&gt; GASTRONOMIA

## Sukalde osasuntsua ezagutzeko hitzaldia eta afaria hilaren 20an

Econat elikadura naturalaren aldeko eskolak hitzaldia antolatu du egubakoitz honetarako, azaroak 20 (20:30). Hitzaldia eskolak Arrasaten duen egoitzan izango da –Hondarribia kalea 3–. Udazkenean begirako elikaduraz mintzatuko dira

Eta solasaldiaren ostean afaria egingo dute, 21:30ean hasita. Menua, ezberdina bezain erakargarria: besteak beste, aguakatedun saltsaz bustitako azalorea eta gaztaina-moussea jan ahalko dute gerturatzen direnek. Gonbita egina dago: on egin!

&gt; ERAKUSKETA

## Goikobaluren erakusketa hilaren 20ra arte zabalik

Joan den urriaren 30ean zabaldu zuten Goikobalu abesbatzaren ibilbidea laburbiltzen duen argazkien gaineko erakusketa. Erakusketan 20 urtetan zehar jasotako hainbat argazki daude ikusgai, kontzertuetakoak eta bidaietakoak bereziki. Erakusketa Harresi aretoan dago ikusgai, baina ez eguneroko.

Erakusketa oraindik bisitatu ez duenak egubakoitz honetan izango du horretarako azken aukera. Eta ez du denbora tarte handiegirik izango, gainera. Izan ere, bi orduz bakarrik egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara, hain zuzen.

OBRAK > ERREPIDEA

# Saihesbideko lanak 'oso ondo' doaz, Gabonetarako amaituta egongo dira

Ekainean hasitako saihesbidearen asfaltatze lanek ez dute atzerapenik izango

Zarataren aurkako panelak ere jartzen ari dira; urtarrilerako gertu egongo dira

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Arrasateko saihesbidearen egoera kaskarrak hamaika kexa sortu izan ditu errepidearen erabiltzaileen artean. Eta bertan izan ohi den zirkulazioa ikusita, hainbat eta hainbat izan dira kalte-ituak. Bada, hilabete eta erdi eskas geratzen da saihesbidea behar den moduan egoteko. Izan ere, Oskar Rekalde Bidegiko prentsa arduradunak jakinarazi duenez, errepidearen berritze lanak Gabonetarako amaituko dituzte.

Obrak espero baino berandua go hasi zituzten, baina aurreikusi moduan eta atzerapenik gabe amaituko dira. Izan ere, ekainean hasi zituzten lanak eta zazpi hilabeteko epea ezarri zuten lanok amaitzeko. Eta Rekaldek adiera-



Arrasateko saiesbidean lanak egiten dabilta.

JOKIN BEREZIARTUA

zi duenez, "ez da ohikoa halako kasuetan, baina lanak oso ondo doaz". Azken egunetako eguraldi kaskarrak obrak geldiarazi ditu; edozelan ere, Gabonetarako amaituta egongo dira, azken orduko arazo garrantzitsurik ezean.

**ZARATAREN AURKAKO PANELAK**  
Gainera, aurreikusten ziren asfaltatze lanez gain, zarataren aurkako panelak ere jartzen ari dira saihesbidean. Azken lan hauek, Rekaldek aditzera eman duenez, obra nagusia aprobetxa-

tuz egin dira: "Zarataren aurkako panelak ez zeuden aurreikutsita, baina beharra dagoenez, asfaltatze obrak aprobetxatu ditugu panelok jartzeko".

Bestalde, obrak amaitu arte bide mozketak batzuk egingo dire-

la gaineratu du Rekaldek. Izan ere, dioenez, "oraindik ez da modurik asmatu bide mozketarik gabe asfaltatze lanak gauzatzeko". Finean, ia gertu dago herriko zirkulaziorako hain garrantzitsua den Arrasateko saihesbidea.

## Datorren urtean 'lana doan' ekimena izango da gaztetxean

Arrasateko gaztetxean ekimen berri bat abiarazi gura dute. *Lana doan* bataiatu dute: gaztetxeak materiala eta baliabideak jarriko lituzke gura duenak edozein lan egiteko. Besteak beste, honakoak dira aurreikusten diren lan arloak: larrugintza, bizikleta konponketak, serigrafia eta irratia. Ekimenaren inguruan berba egiteko bilera egin zuen AGAKOK -Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua- joan den egubakoitzean. Datorren urtean martxan jartzea espero dute.



J.B.

AUKEA

## Masajeaz ikasi eta gozatzeko aukera

Ikastaroetan izena emanda duenak masajea prezio erdian izango du

J.B. > ARRASATE

Aukeak bi eskaintza berezi egin die euren erabiltzaileei urtea amaitu aurretik. Arrasateko kirol zerbitzuak eskaintzen dituen hamaika ikastaroetako batean izena emanda duenak masajea prezio erdian jasotzeko aukera izango du, abendura arte.

**MASAJEA HIZPIDE**

Bestalde, masajearen inguruan hitzaldi sorta antolatu du Aukeak. Eguazteneko izango dira, 19:15etik 20:30era. Denetarikoz masajeak izango dira berbagai hitzaldiotan.

KOMUNIKAZIOA &gt; OSPAKIZUNA

# Txapa Irratiaren 25. urteurreneko jai handia hilaren 21ean egingo dute

Baba-jana egingo dute, eta 25 urteotako esatari eta entzuleak batu nahi dituzte

Bestetik, gaurtik domekara arte saio bereziak emango dituzte FMko 97.25ean

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

Txapa Irratiak sortu zeneko 25. urtemuga ospatzen dihardu urte osoan barrena. Horren barruan, gaur hasi eta domekara arte irratsaio bereziak eskainiko dituzte. Hain justu, askotariko kontzertuak entzuteko aukera egongo da FMko 97.25ean, Txapa kontzertu zaharrak deitu duten atalean.

Horrekin batera, zapatuan, hilak 21, urteurren jai handia egingo dute. Jai horretan 2009-2010 denboraldiko programazioa aurkeztuko dute eta baba-jan herrikoia ere egingo dute. Antolatzaileen esanetan, mahaiaren bueltan batu nahi dituzte "25 urteotako ibilbidean irratian jardun duten pertsonak, uhinen beste aldean belarria jarri dutenak, eta baita asanbladako kideak ere". Bazkarirako txartelak salgai daude, dagoeneko, 5 eurotan, Arrano, Etxagi eta Pol-Pol tabernetan.

## 25 URTE, ETA SASOI BETEAN

Txapa sortu zela 25 urte pasatu diren arren, irratiko kideek "oraindik komunikabide ez komertzial, libre eta herriko baten sinisten" dutela azaldu dute: "Gaur egun, komunikabideak inoiz baino garatuago daudenean, telebistan inoiz baino kate gehiago ditugunean, pertsonen arteko komunikazioan gero eta gailu gehiago ditugunean, Internet bidez informazioa gero



Maitena Arana eta Andoni Larrañaga esatari lanetan, Txapa irratiko estudioan.

GOIENKARIA

eta gertuago dugunean, oraindik ere Txapa irratia zentzua duela uste dugu", esan dute.

Bestalde, "gariai beste batzuk" direla aitortu arren, Txapako uhinen bitartez "garrasi egiteko beharrak bere horretan" jarraitzen duela gehitu dute: "Duela 25 urte irratia sortu zutenek beste garai bat bizi izan zuten. 80ko hamarkadan euren garrasiak, musika, umorea, ironia eta ideiak transmititzeko beharra sentitu eta irratia sortu zuten, txapa ematen hasiz. Guk, gaur egun, testuinguru erabat ezberdinean, beste behar batzuk dauzkaguan. Irrati pirata izatearen zentzua erabat aldatu da, eta tekni-

koki ere errazagoa da, baina garrasi egiteko beharrak, gurea den komunikabidea izateko beharrak, bere horretan jarraitzen du", esan dute.

Txapako kideek aitortzen duten moduan, 25 urteotan "irratia oso modu ezberdinean bizi izan duten pertsonak igaro dira estudiantik, zein asanbladatik. Denetarik egon da eta aniztasun horrekin batera joan da irratia ibilbide gorabeheratsua egiten".

Kontukontu eta bizipenak bizipen, 25 urte egin digu Txapa irratia, eta, sasoi betean dagoela erakutsiz, programazio berria ere aurkeztuko du zapatuko jaian.

## PROGRAMAZIO BERRIA

2009-2010 denboraldian hamar irratsaio propio eta Arrosa irratia sareko beste hainbat entzuteko aukera egongo da Txapan.

Irratsaio propioen kasuan, besteak beste, *Berbenir* saioan jazz, flamenko, bossa nova... bezalako doinuak entzun ahal izango dira astelehenetan, 20:00etan. Martitzenetan, hilean behin, mitoen gainekoak azalduko dituzte *Mithaka* saioan, 21:00etan; eta 22:00etan, berriz, *Kanpora begira* irratsaio internazionalista emitituko dute. Egubakoitzetan, 00:00etan, literatura musika... izango dute hizpide *Itzali telebista* programan.

## Irratsaio bereziak FMko 97.25ean

### 16, astelehena

12:30 2009-2010 programazioaren aurkezpena.

23:00 Txapa kontzertu zaharrak: *Sexty Sexers*.

### 17, martitena

21:30 Txapa irratia historia.

23:00 Txapa kontzertu zaharrak: *Hand-ons*.

### 18, eguaztena

21:30 Itxungi eta Kkinzona irratietako kideekin solasaldia.

23:00 Txapa kontzertu zaharrak: *Willis Drummond*.

### 19, eguena

21:30 Mahai-ingurua: *Komunikabideak gaur egun*.

23:00 Txapa kontzertu zaharrak: *Anestesia*.

### 20, egubakoitza

23:00 Txapa kontzertu zaharrak: *Royal Canal*.

### 21, zapatua

12:30 Txapa-poteoa txarangarekin.

14:30 2009-2010 programazioaren aurkezpena, gaztetxean.

14:45 Baba-jana, gaztetxean.

23:00 Txapa kontzertu zaharrak: *Ama Say*.

### 22, domeka

23:00 Txapa kontzertu zaharrak: *Txaparrada musikala*.

OHARRA: Aste osoan antzinako irratsaioak emitituko dituzte, 16:00etan.

*Gure paradisu*an, berriz, eguraldiaren gaineko gorabeheraz jardungo dute, ilberri, ilgora, ilbete eta ilbehera egunetan, 19:30ean.

Arrosa irratia sareko irratsaioei dagokienez, entzun ahal izango dira Info 7, Hala Bedi eta Tas Tas irratietako hainbat saio, aste-ko zazpi egunetan.

## oharrak

### LUNTXA

#### > Erretiratuendako luntxa emango du Lasai Tokik

Abenduaren 8an izango da, 12:00-14:00 orduetartean. Urtero egiten dute eta herriko erretiratu guztiak daude gonbidatuta.

### KINTADA

#### > 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin

Azaroaren 22an egingo dute, 14:30ean. Izenematea da azaroaren 18a baino lehen, eta horretarako

aurreratu behar dira 12 euro Euskadiko Kutxan.

### KINTADA

#### > 1947an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufon

Abenduaren 5ean egingo dute, 21:00etan. Izenematea da azaroaren 31 baino lehen, Euskadiko Kutxako zenbaki honetan: 009.1.09901.9. Sartu behar dira 60 euro. Joan-etorrirako autobusa egongoda; 20:30ean abiatuko da Santa Marina ostetik.

### MUSIKA ESKOLA

#### > 'Miserableak' ikuskizunaren DVDa eta CDa Musika Eskolan daude

Dagoeneko iritsi dira *Miserableak* ikuskizunaren DVDak eta CDak Musika Eskolara. DVDaren prezioa da 15 euro eta CDarena, 7. Jasotzeko jo idazkaritzara, astelehenetik egubakoitzera, 15:30-19:30 orduetartean.

### UDALA

#### > Fraiskozur in haurrendako feria jartzeko baldintzak kalean daude

Fraiskozur in haurrendako feria jartzeko esleipena egitera doa Udala eta baldintzak eskuragarri jarri ditu [www.bergara.net](http://www.bergara.net)-en. Izena emateko mugaeguna da azaroaren 18a. Proposamenak aurkeztuko dira idazkaritzan.

### DEIALDIA

#### > Aritzetak gonbidapena egiten die herritarrei taldean parte hartzeko

Entseguak egiten dituzte astelehen eta eguaztenetan, 21:00etan, Mizpirualdeko elizan, eta abesba-

tzan parte hartzeko interesa duenak bertaratu baino ez du. Informazio gehiagorako deitu 660 98 32 78 zenbakira edo idatzi [aritzetabesbatza@gmail.com](mailto:aritzetabesbatza@gmail.com) helbidera.

### KINTADA

#### > 1939an jaiotakoek bazkaria Zumelagan azaroaren 21ean

Hitzordua egin dute 13:30erako Fraiskozur in eta bazkaria izango da 14:30ean. Izena emateko: 943 76 24 79 (Eulali Elgarresta) eta 943 76 23 94 (Pedro Egaña).



GAZTEAK > LEHIAKETA

# Maddi Muxikaren irudia aukeratu dute Gazte Guneako egutegia egiteko

Lehiaketara aurkeztutako 11 lanen artean hobetsi dute 15 urteko gaztearena epaimahaiko kideek

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Aukeratu dute dagoeneko Gazte Informazio Guneako 2010eko egutegirako diseinu lehiaketaren irabazlea: Maddi Muxika Arrizabalaga 15 urteko bergararra, hain justu ere. Eguenean batu zen epaimahaia -Kultura Zerbitzuko

langileek osatu dute- eta aurkeztutako 11 lanetatik Muxika gaztearena hobetsi dute: "Jasotako lanen artean Muxikarenak islatzen du ondoen Gazte Informazio Guneak ematen duen zerbitzua", azaldu du Maider Sedanok, Gazte Informazio Guneako arduradunak.

Hori horrela, Maddi Muxikak 300 euroko saria jasoko du. Sari-emateari dagokionez, "seguruenik hilaren 26an" izango dela gehitu du Sedanok, "erabat konfirmatzeke" dagoen arren.

## 5.000 EGUTEGI

Maddi Muxikaren irudiarekin 5.000 egutegi egingo dituztela azaldu du Sedanok, eta urtea bukatu aurretik banatuko dituztela gehitu du: "Ikastetxe guztie-



Maddi Muxikaren irudia. GOIENKARIA

tara joango gara eta DBHko 3. eta 4. mailetakiko ikasleekin batzarrak egingo ditugu. Helburua da Gazte Informazio Guneak eskaintzen duen zerbitzuaren berri emate-

## Gazte Informazio Gunea, Interneten

Teknologia berriez ere baliatzen da Gazte Informazio Gunea gazteen artean informazioa banatzeko. Bi modu baliatzen ditu horretarako: batetik, [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean gazte bulegorako sarrera dago eta etengabe eguneratzen duten informazio erabilgarria -lanpostuak, lehiaketak...- dago hor.

Bestetik, buletin elektronikoa zerbitzua ere badu, askotariko deialdiak nork bere e-postan jasotzeko. Harpide egin daiteke [www.bergara.net](http://www.bergara.net) helbidean.

tea, eta, bide batez, egutegia ere banatuko diegu".

Bestalde, ohiko lekuetan ere lagako dituztela azaldu du, herri-tarrek har ditzaten.

ZERBITZUAK > INTERNET

# Beste 16 ikastaro abenduan KZgunean

Sare sozialak, 'Skype', 'Youtube', 'Gmail' eta beste ikasteko aukera egongo da, doan, hil osoan barrena

M.B. > BERGARA

Abenduko ikastaroen berri eman dute KZguneako ordezkariak, eta, ohi bezala, Internetekin lotura duten ikastaro katalogo zabala aurkeztu dute. Hain justu, 16 ikastaro emango dituzte; guztiak doan, gainera.

## EGUN BATEKO IKASTAROAK

Ikastaro gehienak egun batekoak dira, *Internet+e+Administrazioa* delakoa izan ezik: hori izango da abenduaren 9tik 22ra, 11:00-13:00 edo 16:00-18:00 orduetartean, astelehenetik egubakoitzera.

Egun bateko ikastaroei dagokienez, honakoak egin ahal izango dira: *Flickr*, abenduaren 2an, 11:00-13:00; *Zuhaitz genealogikoa*, 3an, 09:00-11:00; *Picnik*, 4an, 16:00-18:00; *Softonic*, 9an, 16:00-18:00; *Blogger*, 10ean, 09:00-11:00;



Eusko Jaurlaritzak teknologia berriak herritarrei hurbiltzeko jarritako zerbitzua dira KZguneak.

I.A.

*Goople eta Maps Earth*, 11n, 16:00-18:00; *Wi-fia*, 14an, 16:00-18:00; *Sare sozialak*, 16an, 16:00-18:00; *Skype*, 18an, 09:00-11:00; *Ltd*, 21ean, 18:00-20:00; *Megaupload*,

23an, 11:00-13:00; *Google tresnak*, 23an, 16:00-18:00; *Youtube*, 29an, 11:00-11:00; *Gmail*, 30ean, 09:00-11:00; eta *Ikus-entzunezkoak*, 30ean, 16:00-18:00.

Ikastaroez gain, KZguneako erabiltzaileek sarean nabiga dezakete eta posta elektronikoa konputatua sortu, besteak beste, guneako arduradunaren laguntzarekin.

AISIALDIA

## III. patata feria San Antonion domekan

Lau patata mota dastatzeko aukera eta askotariko postuak egongo dira

M.B. > BERGARA

Datorren domekan, hilaren 21ean, III. patata feria egingo dute Gure Ametsa elkarteak kideek San Antonion.

10:30ean irekiko dute feria, eta, askotariko artisau eta jaki postuekin batera, lau patata barietate dastatzeko aukera egongo da, eta baita hainbat patata mota ikusteko aukera ere.

Patatekin lotutako lehiaketa ere egingo dute. Herriko elkarten arteko lehiaketa izango da eta prestatu beharko dituzte patatak bakailoarekin.

13:00etan marmitako dastatzea egongo da eta 14:30ean bukatu egingo da feria.



**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**

Ibargarai 44-46 BERGARA  
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA  
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI  
943 78 24 13



Argazkia: Kiñu

UDALA &gt; HIRIGINTZA

# Errekalde eta Roke Azkune eraberritzeko dirua 2010ean

Zapateroren  
Gobernuak emandako  
1.169.000 euroak  
Errekalderako dira

Bestalde, 2010eko  
aurrekontuetan Roke  
Azkune berritzeko  
partida onartuko dute

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Udalak 2010ean Errekalde eta Roke Azkune auzoak eraberritzeko dirua izango duela esan zuen Lourdes Idoiaga alkateak GOITB-ko *Goiena Magazine*a saioan egin zioten elkarrizketan.

Errekalde auzoa eraberritzeko Zapateroren Gobernuaren E-planaren bigarren faseko dirua erabiliko dute. "1.169.000 euro jasoko ditugu, eta guztia Errekalde eraberritzeko erabiliko dugu", esan zuen alkateak. Auzoko bizilagunen batzordearekin hainbat bilera egin dituzte udal arduradunek proiektua zehazteko. Auzoan egin gura dituzten lanetako batzuk



Errekalde auzoan abiadura moteltzeko neurriak hartzea aurreikusten dute.

MIREIA BIKUÑA

dira irisgarritasuna hobetu, abiadura moteltzeko neurriak hartu eta aparkalekuak egokitu.

## ROKE AZKUNE AUZOKO LANAK

Roke Azkuneko eraberritzearen gainean hango bizilagun batek egindako galderari erantzunez, alkateak esan zuen 2010eko aurrekontuetan diru partida izango

dutela: "Pazientzia handia dute hango bizilagunek. Baina oso garbi esan gura dut datorren urtean auzoa berritzeko dirua izango dugula".

Roke Azkuneko bizilagunek hainbat eskaera egin dizkiote Udalarari azken lau urteotan: alde batetik, argiteria konpontzeko eskaera. Igogailuak jarri zituzte-

nean farolak kendu zituzten, eta leku batzuetan argi gutxi dago gauetan; beste alde batetik, zorua konpontzeko eskaera egin dute, harriak solte eta auzora heltzeko eskailerak egoera txarrean daudelako; azkenik, etxeetako paretetan hezetasun arazoak daudela salatu dute. Datorren urtean eraberrituko dute auzoa.



JOSETXO ARANTZABAL

## Rufino Arantzetak 100 urte bete ditu

Oñatiko Alkate Lourdes Idoiagaren eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Rosarito Galdosen eskutik oroigarriak jaso zituen Rufino Arantzetak (Elgeta, 1909) atzo, 100 urte betetzearren. Ekitaldia Larrain Gain elkartean egin zuten. Arantzeta elgetarra da jaiotzez, baina 30 urterekin lanera joan zen Oñatira, eta han bizi da ordutik hona. Emaztea, bost alaba, zazpi biloba eta bi birbiloba ditu.

Teresa Diaz &gt; Margolaria

## "Kezkatuta nago erakusketak izan dezakeen harrerarekin"

M.B. &gt; OÑATI

Teresa Diaz oñatiarrak egindako margoekin erakusketak zabaldu zuten egubakoitzean. Pastelarekin, olioarekin eta akuarelarekin egindako 30 bat lan ditu ikusgai. Harekin egin dugu berba.

### Ze ikusi ahalko dute erakusketara doazenek?

30 lan jarri ditut. Pastelarekin, olioarekin eta akuarelarekin egindako lanak dira; besteak beste, natura hilak, erretratuak eta gorputz biluziak margotzen ditut.

### Noiz hasi zinen margotzen?

Orain dela hamar urte hasi nintzen Gasteizen eskolak hartzen, Marian Gomez irakaslearekin. Goizetan lan egiten nuen eta arratsaldeetan margotu.

### Zergatik Oñatin?

Etxeokok eta lagunok animatuta egin dut. Oñatin egiten



Teresa Diaz margolaria.

M.B.

dudan lehena da, eta kezkatuta nago erakusketak izan dezakeen harrerarekin.

### Noiz arte ikus daiteke erakusketak?

Azaroaren 27ra arte egongo da zabalik, astelehenetik domekara 18:00etatik 20:00etara.

## oharrak

HITZALDIA

### > 'Beste Gasherbrumak', Juan Vallejoren eskutik

Aloña Mendi elkarteko mendi sailak antolatuta hitzaldia egingo du Juan Vallejok azaroren 17an kultura etxean, 19:30ean.

HITZALDIA

### > Komunikabideek seme-alabengan duten eragina aztergai

Elkar Hezi ikastetxean egingo dute hitzaldia etzi, 18:30ean.

ZINEMA

### > 'Los limoneros' pelikula zineklubean

Eguenean, 20:00etan emango dute Eran Riklis-ek zuzendutako filma.

&gt; OSASUNA

### A gripearen kontrako txertoa hartzeko txanda har daiteke

A gripearen kontrako txertoa hartu gura dutenek gaurtik dei dezakete osasun etxera eguna eta ordua hartzeko. Hain justu ere, 943 03 54 30 telefonora dei dezakete. Erizain bat egongo da txertoak ipintzen. Oraingoan, gaixotasun kronikoak dituztenak bakarrik txertatuko dituzte, haurdun dauden emakumeendako txertoa ez dago-eta gertu.



Guillermo Riosek zuzendutako *Nasija* dokumentalak, besteak beste, Berlingo Film Laburren Jaialdia irabazi du. GOIENKARIA

## GIZARTEA > ZINEA

# Kubako Zine Pobrearen Nazioarteko filmak ikusi ahalko dira gaurtik

Eguenera bitartean, guztira, 15 film eskainiko dituzte Eskoriatzako unibertsitateko kaperan; emanaldiak 19:00etan hasiko dira

### MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Diputazioaren eta Mugarik Gabek gobernuz kanpoko erakundearen hitzarmenaren harira, Eskoriatzak garapen eta komunikazio emanaldiak hartuko ditu gaurtik eguenera. Eskoriatzako Udalak eta Mugarik Gabek elkarlanean antolatu dute ekimen hori.

Kubako Zine Pobrearen Nazioarteko Jaialdiko filmak iku-

si ahalko dira unibertsitateko kaperan, 19:00etan. Gaur iluntzerako, esaterako, bost dokumentalen proiektzioa dago aurreikusita: *Los elefantes nunca olvidan*, *La deseada justicia*, *La hipocresía del deseo*, *Nasija* eta *La maltratada historia de María*. Bihar, martitzena, *Invierno en Bagdad*, *Carretillas driver* eta *Las niñas y los niños ante la inmi-*

*gración* ikusi ahalko dira; eguaztenean, *El viaje de Said*, *Hiyab*, *Revolución azul*, *Mohsen makes film* eta *Voyage en sol majeur*; eta eguenean, azkenik, *Trabajo infantil en Nablus* eta *Las Cruces poblado próximo*.

Mugarik Gabek emanaldiak egiten dituzten erakundeei Emisio Eskubideak deitutako kanoa eskatzen die. Horrekin lortutakoarekin, Kubako Gibara herrian egingo den hurrengo Zine Pobrearen Nazioarteko Jaialdia lagunduko dute. Irlan ekoizten den *zinema* alternatiboa bultzatzen du horrek.

## Beñat Arrietak irabazi du gaztelekuko galdera jokoak

Eskoriatzako gaztelekuan galdera joko berri jarri zuten martxan urrian. Horretan hilabete behin galdera bat jarriko dute eta gazteek kutxa batean erantzuna sartu beharko dute. Hil amaieran, erantzun zuzenen artean Harremaneko dendako 20 euroko bonoa zozketatuko da. Galdera jokoak badu dagoeneko lehen irabazlea: Beñat Arrieta.



ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

## ARETXABALETA-ESKORIATZA > GAZTELEKUEKAKO RALLYA

# Aretxabaletak lortu du sari nagusia

Taldeak aurkeztu dituen 10 lanek irabazi dute argazki bilduma onenaren saria: argazki kamera digitala, hain zuzen

du sari nagusia. Talde horrek aurkeztu dituen 10 argazkiek irabazi dute argazki bilduma onenaren saria; hain justu ere, argazki kamera digitala.

### LIHER CANTURIES

Horretaz gain, gai bakoitzaren gaineko lan onenek ere saria jaso dute. Azpimarratzekoa da, horren harira, Liher Canturiesek hiru sari eraman dituela; hain zuzen, diruaren, kultura ezberdinen eta aitaita-amamen gaietan. Harremanek duen bidezko merkataritza dendan gastatzeko 10 euroko erosketa bonoa irabazi du Canturiesek.

### MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Dagoeneko egin dute Txatxili-purdik Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan antolatutako gazteendako argazki rallyaren sari banaketa. Lehenengo edizio horretan Aretxabaletako gaztelekuko taldeak lortu



Aretxabaletako gazte taldeak musika gairako aurkeztutako lana. GOIENKARIA

## ARETXABALETA > TEKNOLOGIA BERRIAK

# KZguneko telefono zenbakia aldatu egin dute

Azaroan astelehenetik egubakoitzera bitartean egongo da zabalik, goizez

duratela: 943 25 23 51. Bestalde, gogorazi digu hilabete honetan KZgunea astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:00etara egongo dela zabalik.

Betiko zerbitzuak eskainiko dituzte han: IT txartelak lortzeko azterketak egiteko edo Ona eta Izenpe txartelak eskuratzeko aukera dago han; baita *Ikaserraz* atalaren barruan dauden ikastaroak egiteko ere.

### M.B. > ARETXABALETA


Aretxabaletako KZguneko tutore Aitor Madridek jakinarazi digu telefono zenbaki berria

## IRIARTE

Umeen denda  
Helduen lantzeria



Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA



## Hirusta

Jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA



Eguaztanean egin zuten lehen bilera udaletxean, eta plana diseinatzeko ekarpenak jasotzea da asmoa.

JULEN IRIONDO

ANTZUOLA &gt; BIDEBERRI MANKOMUNITATEA

## Berdintasun Plana egiten dihardute 20 lagunek

Hurrengo batzarra azaroaren 25ean egingo dute eta atek zabalik egongo dira lehenengo bileran parte hartu ez zutenendako ere

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ANTZUOLA

Elgeta, Antzuola eta Leintz Gatzaga biltzen dituen Bideberri mankomunitateak emakumeen eta gizonen aukera berdintasunera ko plana egin nahi du, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzaz, hiru herri horietan.

Horretarako, lehen bilera egin zuten eguaztanean, azaroaren 11n, udaletxean. Plana egiteko orduan parte-hartzeari garrantzia eman nahi diote Bideberri eta Elhuyarrek, eta eguaztengo bileran udal ordezkariak, udal teknikariak eta herriko hainbat esparrutan diharduten antzuolarrak hartu zuten parte, guztira 20 lagunek.

Antzuolan iaz berdintasunaren gainean egindako diagnosis aurkeztu zuten; eta ondoren, taldeka, diagnosi hori osatzeko lehenengo pausoak eman zituzten, bileran izan zirenetako bakoitzak bere ekarpenak eginez.

**ESPARRU ASKOTAKO ORDEZKARIAK** Emakumeak eta gizonak berdintasunean bizi ahal izatea da plana garatzearen helburua, eta horretarako, gaiak esparru zehatzetan duen lekua aztertuko dute arlo bakoitzeko ordezkariak: Udalean, hezkuntzan, kulturaren, kirolean, hirigintzan, garraio zerbitzuan, lanean eta enpleguan, besteak beste.

HURRENGO BILERA

Lehen bileraren ostean, beste bi egingo dituzte herri bakoitzean, ekintza zehatzak proposatuz plana diseinatzeko. Antzuolarrak azaroaren 25ean dute hurrengo hitzordua, 18:00etatik 20:00etara. Hala ere, azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna izanik, 19:00etan batzarrean etena egingo dute herriko plazan agerraldia egiteko.

Karmele Korta Bideberriko teknikariak esan digu jendea lanerako gogoz azaldu dela eta lehen batzarrera joaterik izan ez zuten ere atek zabalik dituztela hurrengoetan parte hartzeko.

ARAMAIO &gt; SAN MARTIN

## 31 gazte elkartu ziren partxisean jokatzeko

Egubakoitzean San Martin eguna ospatu zuten. Txiritola elkarteak antolatuta partxis lehiaketa egin zuten eta sekulako giroa lortu zuten; 31 parte-hartzaile izan ziren eta horietako seik, argazkian ageri direnek, saria eraman zuten etxera. Horrez gain, arratsaldean buzkantza eta ardoa dastatzeko aukera izan zen herriko plazan.



ESKARNE UGARTE

ELGETA &gt; ERAKUSKETA

## Bangladesheko umeen esplotazio egoera argazkitan

Dhaka hiriburuan Jose Alonso argazkilariak 5-14 urte bitarteko umei ateratako 30 argazki, ikusgai Espaloian bihartik aurrera

LARRAITZ ZEBERIO &gt; ELGETA

Martitzenetik aurrera, hilak 17, erakusketa berria izango dute ikusgai Espaloia kafe antzokian. Intervida gobernu kanpoko erakundearen proposamena da Bideberri mankomunitateak diruz lagundu duena. *Bangladesheko haurren lanaren mundua* izenburupean Jose Alonso argazkilariaren lanak ekarriko du Elgetara gobernu kanpoko erakundeak.

30 ARGAZKI KOLORETAN

Gaur egun, munduan, 5-14 urte bitarteko 218 milioi ume dago egoera oso gogorretan lan egitera behartuta, esplotatuta. Bangladesh da egoera larriena duen herrietako bat.

Proposatutako erakusketan Bangladesheko Dhaka hiriburuan Jose Alonso argazkilariak umei egindako 30 argazki erakutsiko dizkigute. Erakusketa hilaren 30era arte egongo da ikusgai.



Ume-esplotazioa jaso du Alonsok argazkietan.

GOIENKARIA

LEINTZ GATZAGA &gt; TURISMOA

## Soran hotelekoak pozik, hirugarren jardunaldiekin

Debagoieneko III. Gastronomía Jardunaldiei atzo eman zieten bukaera

ere, jardunaldietarako bildots eta ondoekin bereziki gertatutako menu hori probatzera hurreratu da jendea azken hila-betean. "Menu berezi hori beti gertatu izatea eskatzen dute jardunaldiek, baina merezi du lana hartzeak", gaineratu du.

MIRARI ALTUBE &gt; LEINTZ GATZAGA

Atzo, hilak 15, bukatu zituzten Debagoieneko mankomunitateak antolatutako III. Gastronomía Jardunaldiak. Debagoieneko zazpi jatetxe hartu dute parte ekimenean oraingoan, tartean Gatzagako Soran Etxea hotelak.

Soran Etxeko ugazaba den Montse Velasco oso pozik dago jardunaldiekin. Antolatutako hiruretan hartu du parte eta azken horiek izan direla arrakastatsuenak uste du: "Oraingoan, behar bada, publizitate gehiago egin dugu; jardunaldiak Aretxabaletan aurkeztu genituen eta herritar gehiagok izan zuela gure berri uste dut". Eta hori igarri egin dute, izan

**HURRENGO JARDUNALDIEI BEGIRA** Arrakasta horren aurrean hurrengo jardunaldietan pentsatzen hasita dago Soran Etxeko ugazaba: "Txerri-etzteia izango da". Dagoeneko eman dio Velascok horren berri Mankomunitateko Turismo teknikariari, baina apur batean itxarrotea erabaki dute. Txerria hiltzeko sasoa orain hasi arren, negu parte guztian iraungo du eta laugarren gastronomía jardunaldiok, ondo bidean, Gabon ostean egingo dituzte Velascoren esanetan: "Oraingoan parte hartu dugun jatetxeok gustura gaude eta nik uste hurrengoan ere aurrera egingo dutela gehienek".

# Kirola



> **FUTBOLA**  
Berdinketa aspergarria  
Aloña eta Bergararen  
arteko derbian > 22



> **ERRUGBIA**  
Arrasateko neskek 0-12  
galdu zuten eta mutilek  
30-5 irabazi > 24



> **SASKIBALOA**  
Aloñak sendo segitzen du  
Deustuko Loiolaren aurka  
102-60 irabazi ostean > 25



Carlos Nava bilbotarra eta Holden Hernandez kubatarra barikuko jardunaldian.

XABIER URTZELAI



Arrasate Hiria xake txapelketako irabazleetako batzuk.

JOSETXO ARANTZABAL

## Holden Hernandez garaile, Arrasate Hiria torneoan

**KUBATARRA LEHENA**  
Aurreikuspenak beteta,  
Holden Hernandezek  
lortu du lehen postua

**MAILA BIKAINA**  
Antolatzaileak pozik  
daude xakelariak  
egindako partiduekin

**ARRITXU BARRUSO > ARRASATE**  
Arrasate Hiria torneoako azken  
jardunaldia jokatu zen eguba-  
koitz arratsaldean Arrasateko  
osoko bilkuren aretoan. Aurrei-  
kuspenak bete egin dira eta Hol-  
den Hernandez kubatarrak  
eskuratu du torneoaren garai-  
pena.

Hernandezek Carlos Nava  
bilbotarra izan zuen egubakoi-  
tzean taularen beste aldean eta  
Navas garaituta ziurtatuta zeu-

kan lehenengo postua; horixe  
izan zen, hain justu ere, gerta-  
tu zena. Kubatarrek peoi bate-  
ko aldea aprobetxatu zuen eta  
modu horretan bere alde ipini  
zuen partiduen amaiera. Hori  
horrela, FIBE maisu bilbota-  
rrak ez zuen ezer egiterik izan.  
Partidua irabazita, Holden Her-  
nandezek 6 puntutik 5,5 eskura-  
tu zituen eta Arrasate Hiria tor-  
neoko garaipena berea zen; pun-  
tuazio horrekin berdin zen zer  
gertatzen zen gainontzeko tau-  
letan. Carlos Navasek laugarren  
postua eskuratu zuen, berdinke-  
ta hausteko lortutako koefizien-  
te altuagatik.

Bigarren taulan zeuden Ale-  
jandro Franco eta Andoni  
Miguel aretxabaletarra. Madril-  
darra, Andoni Miguel mendera-  
tu arren, bost punturekin gera-  
tu zen; beraz, ezin izan du erre-  
pikatu 2006 eta 2008ko lehen  
postua eta bigarrenarekin kon-  
formatu behar izan da. Hiruga-  
rren postua Iñigo Argandoña  
nazioarteko maisu donostiarra-

rendako izan da, 4,5 punturekin,  
Alain Prieto abadiñoarrari ira-  
bazi ostean. Azken hau seiga-  
rren postuan geratu da aurten;  
ez da oso emaitza ona izan kon-  
tuan izanda 2007ko irabazle izan  
zela abadiñoarra.

Laugarren taulan, Fran  
Miguel aretxabaletarra larri ibi-  
li zen Montolioren aurrean; bai-  
na, azkenean ere, FIDE maisuak  
madrildarrari irabazi eta bosga-  
rren postua lortu du. Ez hori  
bakarrik, debagoiendarren arte-

an lehen izan da. Azkenik, sei-  
garren taulan, Josu Tornay arra-  
satearrak Egoitz Irure azkoitia-  
rra garaitu zuen eta modu horre-  
tan lortu zuen zortzigarren  
postua. Xakelari guztiek ere mai-  
la bikaina erakutsi dute.

Josu Tornay > Antolatzailea

**"Maila altueneko torneo izan da aurtengoa; pozik gaude"**

**A.B. > ARRASATE**  
Josu Tornay xakelari arra-  
satearrak zortzigarren  
postua lortu du torneoan;  
baina, parte-hartzailea  
izateaz gain, antolatzaile  
lanetan ere ibili da. Sari  
banaketan berarekin izan  
ginen.

Pozik torneoak izan duen  
mailarekin?

Aurtengoa orain arte  
izan dugun maila altuene-

ko torneo izan da. Maisu  
handi bat izan dugu, Hol-  
den Hernandez, eta Alejan-  
dro Franco eta Iñigo Argan-  
doña ere izen handiak dira.  
Arrasate Hiria torneo izen-  
na hartzen doa eta ezagu-  
na da Xakearen munduan.  
Aurten ere oso jokaldi onak  
ikusi ditugu eta horiek xake-  
aren inguruko aldizkari  
espezializatuaren agertu-  
ko dira seguruenik. Oso  
pozik gaude.

**Debagoiendarrak nola iku-  
si dituzu?**

Oso ondo. Lan polita  
egin dugula uste dut. Zen-  
tzu horretan gazteen lana  
azpimarratu nahi nuke.  
Juanma Ruizek 14 urte ditu  
eta sekulako torneo egin du;  
zoriontzeko modukoa izan  
da. Asier Etxagibel ere oso  
ondo moldatu da. Harrobia  
sendoa sortzen ari gara eta  
hori ere oso garrantzitsua  
da guretako.



A.B.

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA &gt; 10. JARDUNALDIA

# Gol bariko derbi aspergarria jokatu zuten Aloñak eta Bergarak Azkoagainen

Lehen zatian Aloñak menderatu zuen jokoa, eta bigarrenean Bergarak; baina, aukera gutxi egin zituzten eta azken metroetan huts egin zuten

ALOÑA MENDI

0-0

BERGARA

**Aloña Mendi** > Mikel, Julen (Iñigo, 84. min.), Jon, Roberto, Aritz, Xabier, Josu, Mikel, Mikel, Jon (Iñigo, 62. min.) eta Iker.

**Bergara** > Jokin, Josu, Andoni, Unai, Mikel, Jon (Jon, 36. min.), Iker, Mikel, Markel, Oier eta Martin (Imanol, 62. min.)

**Aipatzekoak** > Bergarako zale asko hurbildu zen Azkoagainen harmailetara. Aloñako zaleek ere ez zuten huts egin. Giro ona egon zen.

mailetan bildu ziren futbol zaleak aspertu egin ziren, eta ez zuten golik ikusi. Derbi gogorra eta bizia izan zen, baina joko gutxikoa.

**LEHEN ZATIAN, ALOÑA HOBETO...**

Bi taldeak gogotsu irten ziren zelaira. Azkoagainen dituen neurrietara egokitzeko Bergarako entrenatzaileak bost jokalarri jarri zituen atzeko lerroan. Hala, Aloñari kosta egin zitzaion defentsa gainditu eta gol aukerak egitea. Dena den, oñatiarrak izan ziren lehen zatia menderatu eta gol aukerak egin zutenak.

Lehen zatiko 18. minutuan Jon Astigarragak erdiraketa egin zuen ezkerretik eta Mikel Ibabek buruz egindako errematea korrerera bidali zuen atezainak. Sei minutu geroago Astigarragak berak izan zuen lehiako aukerarik garbiena. Sanchezek eskuinetik egindako erdiraketa kanpo-

ra bidali zuen, atezainaren aurrean bakar-bakarrik zegoela. Atsedanaren aurretik Astigarraga kórner jaurtiketarekin gol zuzena egiteko zorian egon zen. Bergarako defentsak urrundu zuen baloia, eta Julen Barrenaren bolea langa gainetik joan zen kanpora.

**... BIGARRENEAN, BERGARA**

Bigarren zatian joko sistema aldatzea erabaki zuen Bergarako entrenatzaile Manu Diazek, eta jokalarri gehiago sartu zituen zelai erdian. Hala, eurek menderatu zuten baloia eta zelai erdiko jokoa. Dena den, bi taldeek izan zituzten golen bat egiteko aukerak. Bigarren zatiko lehen bi aukerak bergararrek egin zituzten, baina Markel Ilzarbek eta Imanol Cabanillasek egindako erdiraketak ez zituzten aurrelariak errematatu.

68. minutuan Aloñako jokalarri Roberto Idigorasek area erdira bidali zuen baloia, baina Iñigo Arregik ez zuen asmatu.

Azken minutuan bi taldeak nahi eta ezin ibili ziren, eta gol barik bukatu zen derbia.



Bergarako Mikel Oregi (5) eta Aloñako Mikel Ibabe (18) baloia harrapatzeko lehian, Unai Arregi

ESANAK

**"Puntua ona da Azkoagainen irabaztea oso zaila da-eta. Jokoa ez da ona izan baina emaitza bai"**

Mikel Ilzarbe > Bergarako jokalaria

**"Aukera gutxiko lehia izan da, baina oso borrokatua. Gol aukerak ikusita emaitza justua dela esango nuke"**

Roberto Idigoras > Aloñako jokalaria

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Derbietan emozioa izaten da nagusi, baina atzo Azkoagainen Aloña Mendik eta Bergarak jokaturako derbian ez zen emoziorik egon. Har-

HIRUGARREN MAILA &gt; 14. JARDUNALDIA

# Joko serioa eginez gailendu zitzaion UDA Baskoniari

Lehen zatiko ordu erdia bete aurretik egin zituzten bi golak aretxabaletarrek

Luzapenean binako berdinketa egin zuen Baskoniak, baina epaileak balio gabe utzi zuen

ARETXABALETA

2-1

BASKONIA

**Aretxabaleta** > Gaizka, Haritz, Alain, Ruben, Andoni, Gotzon, Iker, Borja, Aitor, Akaitz eta Iñaki.

**Baskonia** > Fernandez, Casado, Lombrera, Rayo, Albusua, Moran, Suarez, Eraña, Vitoria, Vilarchao eta Martin.

**Epailea** > Mateos jaunak zuzendu zuen partidua. Merino eta Anduaga jaunak izan ziren marrazainak.

M.B. &gt; ARETXABALETA

Merezimendu oso irabazi zuen atzo UDAk Baskoniaren kontra. Defentsa sendoa eta aurreko lerroetan presioa eginez Baskonia taldea menderatu zuten.

Gordobilek ondo kokatu zituen jokalarriak zelaian, eta berehala jaso zuten joko onaren emaitza. Hasi eta berehala egin zuen-eta lehen gola Alain Gomezek. Ordu erdia bete aurretik abantaila handitu zuten etxekoek Aitor Irastortzak egindako golarekin. Baina, lehen zatiko luzapenean Baskoniak egin zuen gola.

Bigarren zatian bizkaitarrek lerroak aurreratu zituen berdinketaren bila, eta kontraerasoetan



UDAk jokalarri Aitor Irastortza baloia oinetan duela, Aitor Fernandezaren aurrean.

JOSETXO ARANTZABAL

hiru aukera garbi egin zituen UDAk. Baskoniako atezain Aitor Fernandez arrasatearrak geldiketa onak egin zituen.

Lehiako azken 10 minutuetan jokalarri bat gutxiagorekin jokatuzuten bi taldeek.

Luzapeneko azken jokaldian berdinketa egin zuen Baskoniak, baina epaileak balio gabe utzi zuen, jokalaria jokoz kanpo zegoelako. UDAk jokalariek eta zaleek lasaitasun ederra hartu zuten epailearen erabakiarekin.

**ARRASATEARRAK, BASKONIAN**

Baskonia Athleticen hirugarren taldea da, eta han dihardute Aitor Fernandez, Iker Urribetxeberria eta Gorka Eraña arrasatearrak. Iaz, gazte mailako Espainiako Kopako finala jokatu zuten.



(7), Roberto Idigoras (6), Andoni Nafarrate (bizkarrez), Josu Agirrezabal (2), eta Aritz Gamendia (7) begira daudela.

JOSETXO ARANTZABAL

#### PUNTU BANAKETA

Puntu banaketarekin gustura zeuden bi entrenatzaileak: Aloñakoa bolada txarrarekin bukatzeko balio izan zielako; eta Ber-

garakoa puntu bat gehiago irabazi zutelako. Biek esan ziguten denboraldia luzea dela oraindik, eta Gabonak arte ahal dituzten puntu guztiak batuko dituztela.

Aste bukaeran denboraldiko 11. jardunaldia jokatu dute. Tolosaren kontra neurtuko da Aloña; eta Beti Gazteren kontra Bergarak etxetik kanpo.

#### > OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

### Mondrak garaipen garrantzitsua lortu zuen Baskoniaren kontra, sailkapeneko zulotik irteteko

Puntu beharrean zeuden bi taldeen arteko norgehiagoka jokatu zuten EHU Baskoniak eta Mondrak. Arrasatearrek irabazi zuten 0-1, eta astea lasaiago pasako dute.

Golik ez jasotzeko asmoz irten zen Mondra zelaira. Atzeko lerroa sendo mantenduz, baloia ondo mugitu zuten zelai erditik aurrera. Ander Bereziartuak egin zuen gola 46. minutuan falta jaurtiketa batean. Emaitza alde izanik, lasaiago jokatu zuten arrasatearrek bigarren zatian.

#### > SENIOR EMAKUMEZKOAK

### Mondrako neskek beste maila bat dutela erakutsi zuten Aloñakoen kontra eta derbia irabazi zuten

Mondrak 7-1 irabazi zuen Aloñaren kontrako derbia zapatuan, Mojategin. Lehen 20 minutuak nahiko parekatuak izan ziren; hain justu ere, Mondrak lehen gola egin arte. Handik aurrera ofatarrak ezinean ibili ziren. Atsedenen aurretik, beste bi gol egin zituen Mondrak. Bigarren zatian Aloñak lerroak atzeratu zituen, eta gol zaparrada jaso zuen. Aloñako entrenatzaile Nerea Pedrosak esan zigun emaitza justua izan zela: "Egun, Mondrak guk baino maila hobea du, eta zelaian erakutsi du".

#### > LEHEN ERREGIONAL

### Bergarak eta Mondrak Ipintzan jokatu zuten derbia banako berdinketarekin bukatu zen

Lehen erregional mailako derbia jokatu zuten zapatuan Bergarak eta Mondrak Ipintza futbol zelaian. Banako berdinketarekin bukatu zen. Bi taldeek partidu parekatua jokatu zuten, eta sailkapeneko lehen bi tokietan zergatik dauden erakutsi zuten -Mondra lehena da 20 punturekin, partidu bat bera ere galdu barik; eta Bergara bigarrena, 16 punturekin-.

Bestalde, Aretxabaleta-Arizmendik puntu bat irabazi zuen Urkiren kontrako lehian, bina berdindu ondoren.

Salneurri gomendatua Ford Kuga Trend 4x2 TDCi 136ZP. BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua, matrikulazio zerga, 2000E plana eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Hilabete bukaera arte baliagarria izakinak agortu arte. Ikusten den modeloa ez dauka zertan izan eskaintzen dena. Ford Kuga Trend 4x4 TDCi 136ZP: 25.300 eurotik aurrera. Kuga gama, batez besteko kontsumoa: 6,3-6,4 l/100km. CO<sub>2</sub> igorpenak: 165-169 g/km.

**Ford** Kuga berria.  
Salmentetan lehenak.

**21.300** eurotik aurrera  
diseinua guztien eskura

**Mugarri Autoak**  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

Feel the difference



NUEVO  
ECOBONO  
FORD

Neskek 0 eta 12 galdu zuten sailkapeneko lehen postuan dagoen Gaztediren aurka

Mutilak 30 eta 5 hartu zuten mendean Bera Bera, hasieratik 'jo eta ke' irtenda

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Errugbia izan zen protagonista zapatu arratsaldean Mojategin. Izan ere, senior mailako nesken eta mutilen taldeek partidua jokatu zuten etxean.

**NESKEK, EZIN LIDERRAREKIN**

Arrasate eta Durangoko neskez osatuta dagoen taldeak ezin izan zuten liderra den Gaztedi mendean hartu eta 5-30 galdu zuten talde gasteiztarraren aurka. Jon Iriak zuzentzen duen taldeak bazuen esperantza emaitza on bat lortzeko, are gehiago etxean jokatu. Ez zen posible izan.

Taldeak hasieratik hona hobera nabarmen egin badu ere, ezin da ahaztu taldea Arrasate eta Durangoko neskez osatuta dagoela eta oraindik taldearen oinarriak finkatzeko badagoela lana. Hala ere, eta aurrean zuten are-rioa ikusita, nahiko ondo aritu ziren gure neskek.

**MUTILAK, 'JO ETA KE HASIERATIK'**

Nesken ostean, mutilek jokatu zuten. Igor Iasiren mutilek denboraldi honetan jokatu duten partidurik onena egin zuten zapatuan, Bera-Beraren aurka. Garai-penaren eta orain arteko partidua onena izatearen gakoak, Ander Eriz taldeko kapitainak dioenez, hasieratik "jo eta ke" aritu izana



Neskek ezin izan zuten norgehiagoka aurrera atera lehen sailkatua zen Gaztedi taldearen aurrean.

JOSETXO ARANTZABAL

**ERRUGBIA > SENIOR MAILA**

## Neskek ezin eta mutilak garaile, orain arteko partidurik onenean

izan zen. Aurreko partiduetan hasierako minutuetan hainbat entsegu jaso ditu talde arrasatearrak. Hala, Erizek jakinarazi duenez, "lehen helburuetariko bat" izan zen zapatuan lehen minututik ondo jarrita eta erasora irtetea.

**DEFENTSAKO LAN MARDULA**

Esan eta egin. Lehen zatiko 10. minutuan lortu zuen Arrasatek markagailua zabaltzea Jose Manuel Servideren entseguarekin (5-0). Bigarren zatiari ere ezin hobeto ekin zioten arrasatearrek, eta kontzentrazio maila

altua erakutsi zuten. Orduan ere lehengo minutuetan lortu zuten entsegua eta norgehiagoka bideratzea (10-0). Aimar Ormazabalak lortu zuen entsegua, aurrelarien arteko jokaldi bikaina aprobeztatu ostean. Ondoren, Ander Erizek egin zuen eral-

daketa. Behin aurretik jarrita, Arrasatek oso ondo jakin zuen markagailua bere horretan mantentzen. Hala, defentsan lan mardula eginda, merezimendu osoz lortu zuten garaipena Iasiren mutilek. Azken emaitza, beraz, 12 eta 0.

**ESKALADA > DEBAGOIENENKO ESKALATZAILEAK**

## Mendieta anaiak bikain, 'oso maila altua' izan zuen Bizkaiako boulder openean

Arrasate izan zen probako herririk ordezkatuena, zortzi eskalatzailerekin. Markel Mendieta hirugarren egin zuen; Ander anaiak, bosgarren

J.B. > ARRASATE

Joan den azaroaren 7an Bizkaiko lehen boulder opena egin zen, BECen. Open izena eman zitzaion; izan ere, gura zuenak har zezakeen parte boulder txapelketan.

Debagoieneko eskalatzailerek ez zioten zitari hutsik egin, eta Arrasate izan zen txapelketara eskalatzailere gehien eroran zituen herria. Zortzi arrasatearrek hartu zuten esku guztira: Markel Mendieta, Ander Mendieta, Ander Lasagabaster, Egoitz Arrieta, Mirian Mulas, Mikel Velasco, Kepa Bruñas eta Inaki Velasco. Aipatzekoa izan zen Mendieta anaien lana; Markelek hiruga-

ren egin zuen eta Anderrek bosgarren. Markel Mendieta irudian jakinarazi duenez, "oso maila altua" izan zuen probak.

**'DENAK HAN ZEUDEN'**

"Eguraldi txarra egin zuenez, han izan ziren eskalatzailere onenak", dio Mendieta. BECen izan ziren, besteak beste, Mikel Ziarrusta eta Gorka Karapeto. Hala, "gustura" geratu zen eskalatzailere arrasatearra egindako lanarekin.

Hurrengo hitzordu garrantzitsua Arrasaten izango dute eskalatzailere. Hain zuzen, Euskal Herriko boulder txapelketa egingo dute, abenduaren 19an.



Markel Mendieta arrasatearrek hirugarren amaitu zuen BECen.

GOIENKARIA

> TXIRRINDULARITZA

**Abenduaren 14a, Quebrantan izena emateko azken eguna**

2010eko Quebrantahuesos proban izena emateko azken eguna abenduaren 14a izango da. Aurten, izena ematen duen lehenak eta azkenak aukera berak izango ditu dortsala lortzeko. Izan ere, izenematea amaitzen denean zozketa bidez banatuko dira dortsal guztiak, 8.000 inguru.

> SPINNING

**Spinning saioa, Euskaltel taldekoen laguntzarekin**

Zapatuan, hilak 21, spinning ikastaroa egingo dute Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Bertan E-goitek enpresako kideek eta Euskalteleko ziklistek hartuko dute parte. Izenematea etzi, hilak 18, amaituko da eta bost euroko fidantza -hau da, gero itzuli egingo da dirua- ordaindu behar da.



SENIOR AUTONOMIKOA > ZAZPIGARREN JARDUNALDIA

# Bigarren laurdeneko partzialari esker irabazi zuen Aloña Mendik

Xabi Igartuaren taldeak 26 puntuko aldea zuen atsedenean, bigarren tartean 32 egin ondoren

Oñatiarrek sendo jarraitzen dute sailkapenean jokaturako zazpi partiduetatik bakarria galduta

ALOÑA MENDI

## 102-60

DEUSTO LOIOLA

**Aloña Mendi** > Ales (8), Jagoba (22), Mallabi (18), Mikel (26), Iñigo (3), Beñat (10), Iban, Iñigo Biain (3), eta Ibai (12).

**Deusto Loiola** > Nuñez (4), Del Río (14), Ortega (12), Aperribai (2), Ruiz (12), Artza, Barrena (2), Pórtilla (5), Andia (5), Portilla (2), paolaza, Esteban (2).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 18-14. Bigarren laurdena: 50-24. Hirugarren laurdena: 73-44. Laugarren laurdena: 102-60.

etxeokendako. Dena den, norgehiagoka bigarren tartean erabaki zuten oñatiarrek. Lau minututan 11-4ko partziala egin zuten eta 11 puntuko aldea zabaldu zuten markagailuan. Defentsan indartsu jokatu zuten, Deustuko jokalarien erasoari traba asko jarrita. Jokaldi batzuetan 24 segundoko jabetza agortu egin zitzaizen bizkaitarrei jaurtiketa garbia topatu barik. Gainera, bigarren tartean lau minutu egon ziren punturik lortu barik. Horregatik guztiagatik, oñatiarrek 19 puntuko aldea zuten atsedena baino hiru minutu lehenago. Minutu haietan Deustuk bi puntu egin zituen, eta Aloñak 11. Hortaz, atsedenerako lehia erabakita utzi zuen Aloñak, 50-24.

### JOKALDI BERRIAK

Markagailua ikusita, hirugarren laurdenean erlaxatu egin ziren etxeokak. Abantaila galdu barik, jokoan hainbat aldaketa egin zituen Igartuak. Errotazio ugari egin zituen jokaldi berriak probatzeko, bai defentsan eta baita erasoan ere. Dena den, bizkaitarrek ez zuten zulorik topatu erasoan, eta abantaila mantentzea lortu zuten etxeokak. 24 eta 29 puntu arteko errenta izan zuten hirugarren tartean.

Probak alde batera utzita, eta jokoari erritmo gehiago emateko asmoz, Aloñak betiko sistema berreskuratu zuen azken tartean, eta erasorako jokalaria bikainak dituela erakutsita abantaila handitzen joan ziren etengabe. Bizkaitarrek ez zuten punturik egin hiru minututan, eta Aloñak 32 puntuko tarte zabaldu zuen (87-



Oñatiarrek gogor jardun zuten.

ARGAZKILARIA

55). Oñatiarrek erasoan egiten zuten jokoak ikusirik, harmailetan zeuden zaleak 100 puntu egiteko gai izango ote ziren galdezka hasi ziren, eta baita lortu ere! Partidua bukatzeko 33 segundo falta zirenean egin zuten 100.a, eta oraindik aukera izan zuten bi puntuko jaurtiketa egiteko.

### HURRENGO PARTIDUAK

Aloña Mendik Gasteizen jokatu du datorren zapatuan Diocesanas taldearen kontra.

Sailkapeneko talde indartsuenen kontra jokaturako dute abenduaren 20an Ocaso Berrio-Otxoaren kontra; eta urtarrilaren 17an Azpeitiko taldearen kontra.

LEHENENGO MAILA

## Defentsan eta erasoan huts egin zuen MUK

Zurbanoren taldeak intentsitate gutxiko partidua jokatu zuen Iruñean

VIAJES MARFIL

## 87-60

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

M.B. > ARRASATE

Defentsan eta erasoan lan eskasa eginez, Mondragon Unibertsitateak ez zuen aukerarik izan Viajes Marfilen kontrako partiduan. Lehen laurdenean nahiko ondo jokatu zuten arrasatearrek, baina azken minutuetan defentsan egindako hiru hutsengatik sei puntuko aldea atera zien Viajes Marfil taldeak.

Bigarren laurdenean defentsa indartu zuten nafarrek, eta MURI erasoko ideia guztiak agortu zitzaizkion. Hala, atsedenera 14 puntu atzetik heldu ziren (46-32).

### ITXURA HOBEA, JOKO BERBERA

Atsedeneko demandaren ondoren, MUK hobeto jokatu zuen. Aldaketa batzuk egin zituzten, eta itxura hobea eman zuten, baina ez zen nahikoa izan lehia irabazteko. Laugarren tartean hasieran 15-2ko partzialarekin erabakita utzi zuten lehia nafarrek.

> SENIOR EMAKUMEAK

## Defentsako lanari esker irabazi zuten Eskoriatzako neskek

Eskoriatzako neskek irabazi egin zuten atzo Añorgaren kontra 44-52. Fernando Rasoren taldeak defentsan egindako lanari esker agindu zuen partidua osoan. Minutu guztietan aurretik egon ziren markagailuan eskoriatzarrak.

> GIPUZKOAKO TXAP.

## Bigarren tartean galdu zuen partidua Soraluze BKEK

Soraluze BKE taldeak 66-56 galdu zuen Kevian Sport taldearen kontra. Lehen laurdenean bi puntuko aldea (12-14) izan arren, bigarren tarte partzialarekin (22-11) galdu zuten bergararrek lehia irabazteko aukera. Azken bi tarteetan ezinean ibili ziren.

Xabi Igartua > Aloña Mendiko entrenatzailea

## "Taldea honetako jokalariek talentu izugarria dute erasoan"

M.B. > OÑATI

Senior Autonomiko mailara ondo egokitu dira oñatiarrek. Zapatuan ere taldea sendoa dutela erakutsi zuten, eta edozein helburu lortzeko gai direla. Dena den, Xabi Igartua entrenatzaileak "partiduz partiduz" joango direla esan digu.

Maila berriari diharduzue, baina zazpi partiduetatik sei irabazi dituzue. Ondo egokitu zarete autonomiko mailara?

Nik esango nuke baietz. Maila indartsua da, eta talde oso onak daude. Baina, maila honetan dauden arau batzuk gure mesederako izan dira. Iaz ez genuen 24 segundoko jabetza adierazten duen markagailu txikia, eta defentsan


galduta ibiltzen ginen, eta abantaila da guretzako. Gure erasoak beti egiten ditugu 24 segundoren barruan.

Zeintzuk dira taldearen ezaugarri nagusienak?

Talde honek talentu izugarria du erasoan. Jaurtitzaile bikainak ditugu. Kontuan izan, halako maila baten 100 puntu egitea ez dela erraza. Baina, erasoan jokalaria onak badituzu, baina defentsan motela bazara, oreka galtzen duzu.

Zeintzuk dira urterako helburuak?

Oraindik goiz da. 23 jardunaldi falta dira, eta ez dakigu non egongo garen bukaeran. Baina, oraingoan, partiduz partiduz joango gara. Guztiak irabazteko asmoz irten go gara kantxara.



M.B.

LEHEN TERRITORIALA &gt; JARDUNALDI BIKOITZA

# Lau puntutik hiru lortu ditu Bergarak aste bukaeran

Zapatuan Hegialderen kontra 32-29 irabazi zuen Labegaraletan, eta atzo, atzeratutako lehian, 23-23 berdindu zuen Ormaiztegiko kiroldegian

MIREIA BIKUÑA &gt; BERGARA

Aste bukaera ona izan da Soraluze BKEko senior mailako eskubaloitza taldearendako. Jokoan zituen lau puntuetatik hiru lortu ditu. Zapatuan 32-29 irabazi zuen Zumarragako Hegialde taldearen kontra Labegaraletan; eta atzo, atzeratutako partiduan, 23-23 berdindu zuen Ormaiztegiko kiroldegian.

BI PENALTI JARRAIAN

Partidu gogorra jokatu zuten atzo Ormaiztegin. Kolpeak eta irainak jaso zituzten bergararrak. "Inoiz ez dut horrelakorik ikusi! Egurra eman digute, eta epaileek ez dute ezer adierazi", esan zigun bukaeran Josetxo Muniategik.

Lehen zatian bergararrak izan ziren nagusi. Defentsan indartsu ibili ziren eta kontraerasoan golak eginez 10-13 heldu ziren atsedenera. Bigarren zatian hasieran, 4-0ko partziala egin zuen Ormaiztegik, eta 13na berdindu zuen. Handik aurrera gorabehera asko izan ziren markagailuak. Bukatzeko bi minutu falta zirenean bi goleko errenta zuen Ormaiztegik. Bergararrak gol azkarra egin eta baloia berreskuratu zuten. Epaileak penalti adierazi zuten. Bergarak huts egin zuen, baina errebotea hartzerakoan penalti adierazi zuen berriro epaileak. Eneko Sudupek berdinketa egin zuen.

ZAPATUKOAK, LASAIAGOA

Zapatuko partidua askoz lasaiagoa izan zen. Nahiko erregularrak izan ziren minutu gehiengatik, eta erraz irabazi zuten.



Iñaki Manuel jaurtiketa egiten Hegialderen kontra lehian.

JOSETXO ARANTZABAL



M.B.

## Nahi eta ezin ibili ziren Aloña Mendikoak

Aloña Mendiko senior mailako taldeak ez zuen aukerarik izan Ormaizteginen kontrako partidua irabazteko. Minutu gehienetan atzetik ibili ziren markagailuan. Atsedenean 13-20 zeuden atzetik. Norgehiagoka parekatzeko ahalegina egin zuten arren, Ormaiztegiko ondo defendatu zuen, eta puntuak eroan zituen, 26-36 irabazita.

## > EUSKADIKO TXAPELKETA Ford Mugarrik urteko lehen partidua galdu zuen Egiaren kontra

Ford Mugarrik urteko lehen partidua galdu zuen zapatuan Egiaren kontra, 38-35. Bi taldeek joko azkarra egin zuten, eta biek ala biek, lehia irabazteko aukerak izan zituzten. Baina, minutu erabakigarrietan donostiarrek jokatu zuten hobeto.

## > EUSKADIKO TXAPELKETA Oso gaizki jokatu zuten Aloñako senior mailako neskek Gasteizen

Aloñako senior mailako neskek partidua txarra jokatu zuten Ies Construcción gasteiztarren kontra, eta galdu egin zuten, 31-20. Defentsan motel ibili ziren eta erasoan ez zuten asmatu. Haserre bukatu zuten norgehiagoka oñatiarrek.

## Futbola

### 3. MAILA

Sailkapena	Punt.	Jokat.
1. Real Sociedad B	31	14
2. Amorebieta	29	14
3. Beasain	25	14
4. Amurrio	23	14
5. Zalla	22	14
6. Zamudio	21	14
7. Durango	21	14
8. Aretxabaleta	21	14
9. Elgoibar	20	14
10. Basconia	20	14
11. Gernika	19	14
12. Arenas Getxo	19	14
13. Leioa	18	14
14. Laudio	16	14
15. Portugalete	15	14
16. Lagun Onak	15	14
17. Santurtzi	15	14
18. Retuerto Sport	13	14
19. Eibar B	11	14
20. Salvatierra	6	14

### Emaitzak

Amorebieta-Gernika	1-0
Real Sociedad B- Zalla	4-1
Eibar-Laudio	0-0
Arenas-Santurtzi	1-0
Retuerto-Beasain	0-0
Leioa-Durango	0-2
Aretxabaleta-Basconia	2-1
Salvatierra-Zamudio	3-4
Amurrio-Elgoibar	0-1
Portugalete-Lagun Onak	0-0

### Hurrengoak

Zamudio-Aretxabaleta

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Sailkapena	Punt.	Jokat.
1. Ondarroako Aurrera	27	10
2. Pasajes	22	10
3. Ordizia	19	10
4. Oiartzun	18	10
5. Idiazabal	17	10
6. Trintxerpe	16	10
7. Zarautz	16	10
8. Berio	15	10
9. Hondarribia	15	10
10. Bergara	12	10
11. Tolosa	12	10
12. Hernani	11	10
13. Mondra	11	10
14. Aloña Mendi	11	10
15. Euskalduna	10	10
16. Beti Gazte	8	10
17. Real Union	6	10
18. EHU Vasconia	4	10

### Emaitzak

Aloña Mendi-Bergara	0-0
Berio-Tolosa	2-1
EHU Vasconia-Mondra	0-1
Euskalduna-Pasajes	0-0
Trintxerpe-Real Union	4-1
Idiazabal-Oiartzun	0-1
Zarautz-Hernani	3-2
Ordizia-Beti Gazte	2-0
Aurrera-Hondarribia	1-0

### Hurrengoak

Beti Gazte-Bergara

Mondra-Trintxerpe

Tolosa-Aloña Mendi

### BESTELAKOAK

GAZTEEN LIGA NAZIONALA  
Leioa-Aretxabaleta 0-0

GAZTEEN EUSKAL LIGA  
San Martzial-Bergara 0-0

ERREGIONAL PREFERENTEA  
Antzuola-Soraluze 4-3  
Elgoibar-Aretxabaleta 1-2

LEHEN ERREGIONALA  
Urki-UDA Arizmendi 2-2  
Bergara B-Mondra 1-1

GAZTEEN OHOREZKO MAILA  
Mondra-Aurrera Ondarroa 2-4  
Burmendi-Aloña Mendi 0-1

GAZTEEN LEHEN MAILA  
Arizmendi-Bergara 3-1  
Aretxa. Arizmendi B-Amaik Bat 2-1

OHOREZKO KADETEAK  
Aretx. Arizmendi-Beasain 1-2  
Bergara-Zarautz 1-8

KADETEEN 1. MAILA  
Arrasate-Elgoibar 0-4  
Bergara-Arizmendi 0-5  
Eibartarrak-Aloña Mendi 0-1

INFANTILEN OHOREZKO MAILA  
Anaitasuna-Aretxabaleta 1-3  
Lagun Onak-Aloña Mendi 3-1  
Arrasate-Elgoibar 5-1  
Bergara Atsedena

EMAKUMEZKOEN LIGA  
Mondra-Aloña Mendi 7-1  
Bergara-Arizmendi 4-2

## saskibaloia

### MAILAZ MAILA

SENIORRAK LEHENENGO MAILA  
Viajes Marfil-MU 87-60

SENIORRAK AUTONOMIKOA  
Aloña Mendi-Deusto Loiola 102-60

SENIOR MUTILAK  
Kevian Sport-Soraluze BKE 66-56  
Ruibal-Soraluze BKE B- 67-54  
Gabi Jatetxea-MU 61-68  
Katu Kale-Aloña Mendi 64-66

SENIOR NESKAK  
Añorga-Eskoriatza 44-52

GAZTE MUTILAK  
Aloña Mendi-Zarautz 52-58  
Soraluze BKE-Oiartzungo 48-29  
MU-Astigarraga 110-51

GAZTE NESKAK  
Eskoriatza-Atco San Sebastian 48-53

KADETE MUTILAK  
Aloña Mendi-Mutriku 37-57

Soraluze BKE-Bide Bide Take 63-42

## eskubaloia

### MAILAZ MAILA

EUSKADIKO SENIORRAK, GIZONEZKOAK  
Egia Servi Chap. Ford Mugarri 38-35

EUSKADIKO SENIOR T. EMAKUMEZKOAK  
Ies Construcción-Verkol Aloña 31-20

GAZT. EUSKADIKO T. EMAKUMEZKOAK  
Usurbil-Verko Aloña 30-21

KADETE. EUSKADIKO T. EMAKUMEZKOAK  
Usurbil-Verkol Aloña 9-22

GIPIZKOAKO LEHEN TERRITORIALA  
Ormaiztegi-Soraluze BKE 23-23  
Soraluze BKE-Hegialde 32-29  
Izarraitz Aloña Mendi-Ormaiztegi 26-36

GIPIZKOAKO BIGARREN TERRITORIALA  
Urnietako-Arrasate 27-30

GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK  
Aloña Mendi-Rotula Stud 36-44

## errugbia

### MAILAZ MAILA

EUSKAL LIGA  
Kanpazar ART-Bera Bera 12-0

Harmailatik

Debagoieneko kirola GOITBn

Astelehenero 22:15ean.

Goitb  
Goiena Telebista  
Ikustekoak



Holden Hernandez > Xake jokalaria

# "Debagoienez zaletasun handia dago, eta maila oso oneko jokalaririk"

A.EZKIBEL/M.BIKUÑA > ARRASATE

Arrasateko xake txapelketa jokatzeko ibili da Holden Hernandez maisu handia. Kubako Güines herrikoa, Kubako talde olinpikoko kide da Hernandez. Xake jokalaria profesionala da; neguan entrenatu egiten da, eta udan Europara etortzen da txapelketak jokatzera.

**Zorionak! Arrasate Hiria txapelketa irabazi duzu. Nolako izan da azken taula?**

Carlos Navasen kontra jokatu nuen barikuan. Nik berdintarekin nahiko nuen irabazteko. Dena den, hasierako jokaldian asko arriskatu zuen Navasek, eta ez zuen emaitza ona lortu.

**Gustura zaude egindako txapelketarekin?**

Arrasate Hiria Txapelketa irabaztea zen helburua, eta lortu dut. Egindako jokoari dagokionean ondo ibili naizela esango nuke. Gustura jokatu dut, eta datorren urtean Europara banago, berriro etorriko naiz Arrasatera.

**Uda partean Europara ematen duzu txapelketak jokatzeko. Xake jokalaria ibiltaria zarela esan daiteke?**

Bai, esan daiteke xake jokalaria profesionala naizela. Batzuetan eskolak ematen ditut, baina nire eginbehar nagusia xakean jokatzeko eta ikastea da. Gaur egun Kubako talde olinpiarreko jokalaria naiz; horregatik, uda partean Europara etortzen naiz txapelketak jokatzera.

Ez dakit jakingo duzuen, baina Espainia da xake txapelketa gehien jokatzeko munduko herrialdea. Madrilen, Valentzian, Caceresen... ibili naiz, eta aukera aprobetxatu dut Euskal Herrira etortzeko. Zortzi txapelketa jokatu ditut guztira, eta lau irabazi ditut.

**Noiz hasi zinen xakean jokatzeko eta nolakoak izan ziren hasiera haiek?**

Anaia zaharrenaren bitartez sartu nintzen ajedrezaren munduan, gutxi gorabehera 11 urterekin. Habanako Güines herrikoa naiz, eta han ajedrez zaletasun handia dago. Akademian ikasi nuen eta txapelketetan parte hartzen hasi nintzen; poliki-poliki maila hobetu eta txapelketak irabazten joan naiz.

**Noiz lortu zenuen Maisu Handi titulua?**

Orain dela hiru urte eskuratu nuen Maisu Handi titulua. Gaur egun, xakean profesionala naiz; honetatik bizi naiz.

**Kuban zaudenean zer egiten duzu?**

Kuban nagoen denbora aprobetxatzen dut ajedrezean jokatu



Holden Hernandez, Arrasateko xake txapelketan.

JOSETXO ARANTZABAL

eta hobetzeko. Bestalde, hainbat ikastarotan ere parte hartzen dut. Izan ere, Kubako talde olinpiarrean jokatzeko Gobernuak soldata bat ordaintzen digu.

Ahal dudun neurrian eskolak ematen ditut, baina nire betebeharrak nagusia xakean entrenatu eta hobetzea da.

**Kuban ajedrez jokalaria profesionalak zenbat zarete?**

Profesionalak asko gara, eta Maisu Handiak, oster, 20 bat lagun izango gara. Talde olinpiarra 10 lagunek osatzen dugu: bost emakume eta bost gizon.

**Hortaz, negu partean xakean entrenatu, eta udan Europara txapelketak jokatzeko dituzue?**

Hori da. Garai honetarako Kuban egon beharko nuke, baina aurten Panamerikako jokoak jokatu ditugu Brasilen eta horrek atzeratu egin du dena.

**Arrasatera zatozen lehenengo aldia da. Zer iruditu zaizu hemengo maila?**

Gipuzkoan barrena ibili izan naiz aurretik, baina lehenengo

KUBAKO TALDEA

**"Kubako talde olinpiarrean jokatzeko Gobernuak ordaindu egiten digu"**

EUROPA

**"Neguan entrenatu egiten gara eta udan Europara etortzen gara jokatzeko"**

GARAPENA

**"Guretzako ona da jokatzeko irteera; bestela, ez guretzako aurrera pausorik egingo"**

aldia da Arrasatera natorrena txapelketa jokatzeko. Egia esan, Debagoienez zaletasun handia dagoela iruditu zait. Gainera, Arrasaten eta Aretxabaletan maila oneko jokalaririk daude.

**Eta jokatzeko modua ezberdina da Kuban eta hemen?**

Ez, nahiko antzerakoa dela esango nuke. Gertatzen dena da Kuban jokalaria profesionalak daudela; hemen, oster, jokalariek beste lanbide bat dute eta xakea zaletasuna da. Hala ere, jokalarien maila oso handia dela iruditu zait.

Gainera, berotasun handia dute hemengo jokalariek; gogo handiarekin prestatzen dituzte partidak.

**Zer esan gura du zuendako Kubatik irteera txapelketak jokatzeko?**

Guretzako ona da. Izan ere, Kuban ez dago txapelketarik; urtean bi besterik ez dugu egiten. Hortaz, han geratzen bagara, jokatu eta entrenatu barik, ez dugu aurrerapausorik egiten. Xakearen garapenerako ere tx-

rra izango litzateke gu han geratzea. Kubatik irteera, beste herrialde batzuetako jokalariek egoteko aukera dugu. Ni bezala, Kubako beste xake jokalaririk ere Europara irteten dira jokatzeko.

**Arrasateko txapelketa amaitu ondoren Kubara itzuliko zarete?**

Arrasateko Madrilera joango naiz; izan ere, gero Extremaduran bi txapelketa jokatu behar ditut. Handik Iruñeara joango naiz eta abenduaren 8rako Kubara itzuliko naiz.

**Baduzu gustuko jokalaririk?**

Azkenaldian, Magnus Carlsen Norvegiako jokalaria gaztea asko jarraitzen dut.

**Arrasaten egon zaren bitartean, gure eskualdea ezagutzeko aukera izan duzula jakin dugu.**

Bai. Joan den aste bukaeran Udalatxan egon ginen; eta txapelketa ondoren, atzo, Kurtzebarrin egon ginen. Urkulun ere egon naiz, eta izugarri gustatu zait inguru hau.

GAZTEAK &gt; MASTURBAZIOA

# Nola masturbatu ikasteko tailerrak

Extremadurako Juntaren 'Plazerra zure eskuetan dago' kanpainak askotariko iritziak sortu ditu

Ikastaroak baino gehiago, masturbazioari bidea eman behar zaiola uste du Ormaza sexologoak

**OIHANA ELORTZA > ARRASATE**  
Extremadurako Juntak ikastaroak eta tailerrak antolatu ditu gaztetxoendako, masturbatzen ikasteko. *Plazerra zure eskuetan dago* izeneko kanpainarekin, 14 eta 17 urte arteko gaztetxoei nola masturbatu erakustea da helburua. 14.000 euro inbertitu ditu kanpaina horretan Extremadurako

Juntak eta ekimenak oihartzun handia izan du. Iritziak ere denetarikoa izan dira.

## BIDEA EMAN

Agurtzane Ormaza psikologo eta sexologo bizkaitarrak, esaterako, ez du gaizki ikusten, baina hau xe dio: "Masturbazioak bere lekua behar duela uste dut, ez ikastaro batzuk bakarrik. Kondoian



Masturbazioa irudikatzen duen margolan bat.

JEREZ DEL TORO

aldeko kanpaina asko egin dituzte, baina inoiz ez dira azaldu masturbazioak dituen onurak: gorpuztas gozatzeko da, bakarrik edo lagunarekin egin daiteke, ez du

inolako arriskurik eta kondoia baino merkeagoa da, adibidez", dio Ormazak. "Eta hori ere egin behar da". "Aluaz, zakilaz edo klitoriaz hitz egiten denean ere,

bai etxean bai ikastetxean, normalean ez da masturbazioa aipatzen. Gazteak ez dira tontoak eta topatzen dute modua ikasteko, baina bidea eman behar zaie".

HAURRAK &gt; IKERKETA

## Arriskua antzeman daiteke Lau hankatan ibilita

Norvegiako Zientzia eta Teknologiako Unibertsitateko lantalde batek 5 eta 11 hilabete arteko hemezortzi jaioberri aztertu ditu

**O.E. > ARRASATE**

Haurrak lau hankatan aritzea arriskuei aurre hartzearekin batera doala esan dute Norvegiako Zientzia eta Teknologiako Unibertsitateko bi ikerlariek. Bi lagun horiek ondorioztatu dute haurra mugikortasuna lortzen doan heinean, hasten dela konturatzen objektu bat gerturatzen ari zaion edo ez eta noiz duen elementu horrekin talka egiteko arriskua.

### 18 HAUR

Ikerketa hori egiteko, 5 eta 11 hilabete arteko 18 haurren dentitate handiko elektroentzefalografiak erabili dituzte Norvegia-



Neskatila bat lau hankatan.

CLAUDIA PEREZ

ko unibertsitateko Ruud van der Weel eta Audrey van der Meer ikerlariek. Ikusi zuten ume zaharrenek, 10 eta 11 hilabete zituztenek, besteek baino lehenago ikusi zutela hurbiltzen ari zitzairen objektua. Adin horretako umeek istripua gertatzeko arriskua antzematen dutela ondorioztatu

zuten ikerlariek. Bost eta zazpi hilabete arte zutenek ez zuten arriskua aurreikusi. Horrela ondorioztatu dute objektuarekin talka egitea antzematen duen neurona-sarea zortzi eta bederatzi hilabeterekin osatzen dela; hain justu ere, umeak lau hankatan hasten diren garaian.

ZORU PELBIKOA &gt; AHOLKUAK

## Zoru pelbikoa indartsu eta osasuntsu nola eduki

Ariketa fisikoak nahiz pasiboak daude eta emaitzak epe motzean ikusten dira

**O.E. > ARRASATE**

Abdominalen behealdean dauden muskulu eta tendoi batzuek osatzen dute zoru pelbikoa eta puxika, uteroa eta ipurtesteak mugatzen dituzte. Emakume guztiendako da garrantzitsua zoru pelbikoa osasuntsu eta indartsu mantentzea, baina

batez ere txizari eutsi ezin diotenendako eta menopausian sartuta daudenendako. Arrasateko Emakume Txokoak ikastaroa antolatu du zoru pelbikoa nola indartu erakusteko. Maitte Onaindia irakaslearen esanetan, Kegelen oinarritutako ariketa fisikoak egiten dira, "muskulua uzkuritu eta lasaitzeko. Badaude bolatxo batzuk ere baginan sartzen direnak, muskuluak indartzeko". Onaindiak dio emaitzak epe motzean ikusten direla, "lubrikazioan, adibidez, eta hori garrantzitsua da menopausia dutenendako".

> TAILERRAK

### 6 eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiendako tailerrak Zumalakarregi museoan

Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak tailerrak antolatu ditu sei eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiendako. Ekintza horiek zapatu arratsaldeetan egingo dituzte, 17:30etik 19:00etara; eta bi helburu dituzte: haurrek eta gurasoek elkarrekin jolastea eta gure herriaren historia modu dinamikoan ezagutzea. Izena eman behar da tailerretan: 943 88 99 00 telefono zenbakira deituta edo [mzumalakarregi@gipuzkoa.net](mailto:mzumalakarregi@gipuzkoa.net) helbidera idatzita. 20. urteurrena ospatzen ari da aurten Zumalakarregi museoan.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, zatoz gure webgunera



**guraso.com**

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **SERAFIN ESNAOLA**  
Hain maitatua izan den abadearen argazkiek argia ikusi dute > 30



> **VOMITO**  
Irungo antzinako punk-rock taldea, sasoi ezin hobean Arrasaten > 31



> **FOLKLOREA**  
Askotariko taldeek dantzan jarri zuten Amaia antzokia > 32



Easo, Escorial eta Montserrat eskolanietako umek sei kantu abestu zituzten batera.

JOSETXO ARANTZABAL

## Eskolaniek zutik ipini zuten Arantzazuko basilika osoa

### KONTZERTUA

Easo, Escorial eta Montserrat eskolaniek aho zabalik utzi zituzten Arantzazuko basilikara hurbildutako guztiak

ARRITXU BARRUSO > OÑATI

Arantzazuko basilika topetaraino beteta, guztiak zutik, Arantzazuko Amabirjinaren kantua abesten; eta horren ostean txalo zaparrada itzela, amaigabea. Horrelaxe amaitu zuten Easo, Escorial eta Montserrat eskolaniek zapatu goizean emandako kontzertua. Zirraragarria izan zen, hileak puntan jartzekoa.

Perfekturik ez dagoela diote batzuek baina esan behar da kasu honetan baietz, kontzertuaren amaiera perfektua izan zela.

Europako eskolania ezagunetarikoa dira eta ulertzen dugu zergatik. 8 eta 14 urte bitarteko mutikoak dira guztiak, baina euren ahotsaren indarrak eta gorentasunak ez dauka inolako umetasun zantzurik.

Easoko eskolania izan zen basilikaren aldarera igotzen lehena. Euskal konposatzaileen obrak kantatu zituzten batik bat, baina baita kantu katalanak eta gaztelazkoak ere; soinu koloretsua eta zirraragarria eskaini zuten. Eskorialekoak etorri ziren hurrengo eta zuzendaria pianoan zutela saio bikaina egin zuten. Montserrateko eskolaniaren maisutasunak

ere aho zabalik utzi zituen guztiak. Baina onena iristeko zegoen oraindik. Hiru eskolanietako gaztetxoak aldarera igo ziren eta elkarrekin abestu zituzten sei kantu. *Agur Jaunak* abestiarekin hasi ziren eta berehala ulertu genuen horrelako hiru eskolania elkarrekin entzutea pribilegioa dela. Baina, oraindik gehiago zegoen gozatze-ko; amaiera perfektua.

### IRITZIAK



Escorial eskolaniako gaztetxoak  
Madril

"Oso aste bukaera polita izan da. Atzo Donostiako Kursoalen abestu genuen eta gaur, hemen, Arantzazun. Oso pozik gaude guraso eta lagunek esan digute oso lan ona egin dugula. Egia da beti gauza bera esaten digutela; beharbada asko maite gaituztelako edo animatu egin nahi gaituztelako. Baina uste dugu benetan ondo abestu dugula eta beste eskolaniekin elkarrekin ere oso ondo aritu gara".



Fernando Sierra  
Madril

"Oso kontzertu polita egin dute. Nire semea Escorial eskolaniakoa da eta benetan hunkituta nago. Esan beharra daukat Arantzazuko Amabirjinaren kantuekin malkoak irten zaizkidala".



Ramon Arantzabal  
Bergara

"Merezi izan du etortzeak; bukaera itzela izan da, gehiegizkoa. Oso giro polita sortu da. Gure artean eskolaniak ezezagunak dira, baina gaur ikusi dugu zelako gauza ederrak egiten dituzten".



Xabier Goikolea  
Donostia

"Oso pozik nago. Ondo abestu dugu. Jende guztia zure aurrean zutik ikustea pozgarria da. Horrela konturatzen zara egiten duzuna jendeari gustatzen zaiola. Lagun berriak ere egin ditugu gaur".



Bergarar asko gerturatu zen Aroztegi aretora Serafin Esnaolaren argazkiak ikustera.

JOSETXO ARANTZABAL



Zumelagako zerbitzari ohiek sasoi hartako kontuak gogoratu zituzten.

J.A.



Fatima Arantzabal, Mikel Irizar, Tere Beloki eta Julian Elkoroberezibar.

J.A.




Iñaki Madinabeitia liburua irakurtzen.

J.A.



Luxia Farras Donostiara joan zireneko argazkiari begira.

J.A.



Miguel Angel Elkoroberezibar liburuaren aurkezpenean.

J.A.



Iñaki Arregi argazkietako bat erakusten.

J.A.



Xabier Berasategi umetako argazkiarekin.

J.A.



Agurne Barruso ama eta alabarekin bere umetako argazkiari begira.

J.A.

**ERAKUSKETA > SERAFIN ESNAOLAREN ARGAZKIAK**

Elkoroberezibarrek egindako lanak erantzun ezin hobea jaso zuen; bergarar guztien esker ona

Poliki-poliki eta inor konturatu barik bergarar askoren bihotzean sartu zen On Serafin Esnaola.

**ARRITXU BARRUSO > BERGARA**

Aroztegi aretora sartzearekin bat urteetan atzera egin zuten bergarar askok egubakoitzean. San Antonioko auzo-lagun asko ikusi genituen, baita Pol-Pol mendi

## Bergararrek urteetan atzera egin zuten Esnaolaren argazkiekin

taldean ibilitakoak ere; horiez gain, baina, asko eta asko izan ziren On Serafin Esnaolak argazkitan utzitako testigantza ikustera hurbildu ziren bergararrak. Miguel Angel Elkoroberezibarrek egindako lan bikainak argia ikusi zuen lehengoz: *Serafin Esnaola. Herrigintzaren erretratua* liburua aurkeztu zuen eta herrian horren maitatua izan zen apaiaren argazkiekin osatutako erakusketa inauguratu.

Liburuak Franco hil osteko bizirik dauden Bergarako alkate guztien testigantzak jasotzen ditu; hori horrela, inaugurazio

ekitaldian izan ziren Imanol Bolinaga eta Victoriano Gallastegi alkate ohiak eta gaur egungo alkate Agurne Barruso. Aroztegi aretoan izan ziren, baita ere, liburua babestu duten erakundetako ordezkariak: Bergarako Udaletik Enara Minguez eta Mikel Elkoroberezibar zinegotziak; Kutxatik Xabier Iturbe presidentea eta Mikel Irizar; Goienatik Estepan Plazaola presidentea eta Inazio Arregi zuzendari nagusia. Horrez gain, Esnaolaren argazkiez gozatzen hurbildu ziren Confebaskeko Miguel Lazpiur, Bergarako EAJko presi-

dente Mikel Lete, Juan Martin Elexpuru idazlea eta Juan Luis Bikuña kazetaria, beste herritar askoren artean.

**"A ZELAKO GARAIAK"**

Luxia Farrasek ondo ezagutu zuen On Serafin Esnaola eta Donostiara egindako irteera batean ateratako argazkiari begira honakoa esan zigun: "San Antoniokoa naiz. On Serafin egunero etortzen zen gurera afaltzera. Bestelako abadea zen, desberdina. Ez zen, ez, geldi egotekoa. Hara eta hona ibiltzen ginen berarekin. Dena dela, San Antoniora

iritzi zenean, hasieran, ez zitzaigun asko gustatu, e?; lehenengo mezan ez zuen sermoirik bota eta hori ez zitzaigun gustatu, baina berehala ezagutu eta sekulako *kariñoa* hartu genion". Iñaki Irizarrek ere makina bat irteera egin zituen Esnaolarekin; argazkiari begira ondo gogoratzen da nola behin Lizarrustira joan ziren perretxikotara eta bueltan Atauen gelditu ziren Aita Barandiaran bisitatzen. Horrelako mila istorio ezkututzen dituzte Aroztegin ikusgai dauden argazkiekin. Egubakoitzean esaldi entzunean izan zen "a zelako garaiak".

MUSIKA > ARGIBILI ETA VOMITO

# Talde klasikoa sasoi ezin hobean, handituta

**NON:** Arrasateko Hiru aretoan.

**EGUNA:** Egubakoitza, azaroak 13.

**ZENBAT JENDE:** 250 lagun inguru.

**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Argi ibili ez nintzenez, izen bereko Oñatiko talde beteranoa galdu nuen. Are gehiago, karteletan iragarritako Golpe de Estado talde txantxikuarrak kale egin zuen taldekideren bat gaixo zegoelako.

Hala, Vomitoren 2009ko berpizkundea ikusteko garaiz heldu nintzen. Lehenengo emanaldia Arrasateko gaztetxean izan zen, eta hango harrera beroa errepikatzerara etorri ziren oraingoan. Kontuak kontu, honako hau da Vomitok izan zezakeen itzulera onena -90eko hamarkadako gazi-gozoa izan zen-. Klaus Groten baxu jotzaile eta gaur egun ahots nagusiak gidatzen du laukotea, *Txitxo* eta *Pato* hastapeneko lagunekin, baina Mikel *El Gordo* gitarra jotzailearen ekarpena ezin da ahaztu.

**EMANALDI BOROBILA**

Entzuleak alde zituzten eta emanaldi borobila egin zuten; hasieratik bukaeraraino ia gelditu

barik. Klausek eta Mikelek daramate pisua, eta baten sinesgarritasun eta sentimendua, bestearen jotzeko maisutasunarekin batuta, ez dago inongo hausturarik; soinu irmoa eta betea dute.

Taldearen hastapeneko klasikoek (*Soy una bomba*, *Fuerzas del orden...*), punkienak, eta gero sortu zituzten kantu ilun -niretzat askoz esanguratsuagoak- tartekatu zituzten. Jendea pozarren, agertokira itsatsita, pogoak dantzatzeko, mikroa hartzen, korak egiten eta eskalatzaileraren bat publikora salto egiten. Eta taldekideak, gero eta piztuago! A ze jai!

**MELODIA ILUN ITSASKORRAK**

Tarteka, Ep baten kaleratu dituzten bi kantu berri eta berreskuratutako *Niños terroristas* interpretatu zituzten. Zenbait kasutan, Mikelen ukituari esker, hard-rocketik hurbil ere ibili ziren.

Bukaeran, jendearen eskaerak behartuta, hiru altxor errepikatu behar izan zituzten: *Ratas de ciudad*, *Montañas de la locura*, eta *Mamá le ha cortado la cabeza a papá*. Melodia ilun itsaskorrrak, arriskua tamaina justuan eta merezitako onspena jaso ez duen taldea sasoi ezin hobean.



Mikel El Gordo-k indar handia handia ematen dio taldeari.

PATXI URANGA

## ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA

09:00 - 14:00 Seber Altube Plaza

## HILEKO 3. ZAPATUAN

### Azaroak 21



Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN  
Enplegu eta Garapen  
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta  
merkatariak konfiantza,  
hurbiltasuna eta kalitatea  
eskaintzen dizkizute.

DANTZA JAIALDIA &gt; EUSKADIKO EXTREMADURAKO ELKARTEEN FEDERAZIOA

# Extremadurako folklorea bizi bizian Amaian

**NON:** Arrasateko Amaia antzokian.  
**EGUNA:** Zapatua, azaroak 14.  
**ESTILOA:** Folklorea.  
**IRAUPENA:** Hiru ordu eta erdi.

**ARRITXU BARRUSO > ARRASATE**

Ekitaldi koloretsua eta alai ikusi genuen zapatu arratsaldean Arrasateko Amaia antzokian. Euskadiko Etxemadurako elkartearen federazioak antolatuta, dan-

tza jaialdia egin zuten. Amaia antzokia jende asko zegoen; goian eta beheko partean, bietan, jendea. Extremadurako folkloreak distira eta alaitasuna ezagutzeko aukera izan zen.

Jaialdian, gainera, gonbidatu berezia izan zuten: Madrigal de la Verako (Caceres) Berezo taldea. Hain justu ere, eurak izan ziren ekitaldia ireki zutenak. Hiru abesti eskaini zituzten eta

ondoren dantzarien txanda etorri zen. Lehenengoak bertakoak izan ziren; Arrasateko Lore Gazteak dantza taldeko kideak eta Arrasateko txistularien eta gaita-jotzaileen laguntza izan zuten.

Extremadurako elkarteak etorri ziren gero; Donostiako Virgen de Guadalupe taldea; Ermuko Flor de Tomillo eta Galdakaoko Alma Extremeña. Lan bikaina egin zuten guztiak. Hiru ordu eta erdiko dantza saioa izan zen eta ez zen inolako etenik egon. Gainera, sinestezina dirudien arren, hiru ordu eta erdian ez zen kantu edo dantza bat bera ere errepikatu.

Ekitaldia hitz bitan definitu behar bada, hitz aproposenak dira koloretsua eta alai. Abestiek eta dantzek alaitasuna ipini zuten eta jantziek kolorea. Dantzarien jantziak benetan ikusgarriak ziren; guztiak ere asko zaindu zuten janzkera.

Zapatukoa Euskadiko Extremadurako elkartearen federazioak antolatzen duen 16. dantza jaialdia izan zen. Azken bi urtetan Zarautzen eta Andoainen ospatu dute eta Arrasaten ere egin izan da aurretik.



Euskadiko Extremadurako elkarteetako dantzarien jantziek kolorez bete zuten Amaia antzokia.

JOSETXO ARANTZABAL.



## ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERMEYA  
2 URTE

1200 b/min  
8 Kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2812

465  
-105  
360 €

FAGOR  
(Renove plana)



BERMEYA  
2 URTE

1200 b/min  
7 Kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2712

420  
-105  
315 €

FAGOR  
(Renove plana)



BERMEYA  
2 URTE

1000 b/min  
7 Kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA WM 10E 321

425  
-105  
320 €

SIEMENS  
(Renove plana)



BERMEYA  
2 URTE

1000 b/min  
6 Kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA 3F-1610

335  
-105  
230 €

FAGOR  
(Renove plana)



1000 b/min  
5 Kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-110

280  
-105  
175 €

aspes  
(Renove plana)



BERMEYA  
2 URTE

1000 b/min  
5 Kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA TS-50100

295  
-105  
190 €

Balay  
(Renove plana)



BERMEYA  
2 URTE

185  
x  
60  
x  
60

A Saillapen energetikoa

HOZKAILUA DREAM G-185

490  
-85  
405 €

edesa  
(Renove plana)



144  
x  
55  
x  
60

A Saillapen energetikoa

HOZKAILUA AFD-145

295  
-85  
210 €

aspes  
(Renove plana)



A Saillapen energetikoa

INDUKZIOA IF-3S/X

475 €

FAGOR



A Saillapen energetikoa

LABEA ETA BITROZERAMIKA

360  
-75  
285 €

aspes  
(Renove plana)

**RENOVE PLANA**  
GARBIGAILUAK  
ONTZI-GARBIGAILUAK  
HOZKAILUAK  
IZOKAILUAK

A -85 €  
A+ -105 €  
LABEAK -75 €

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ >>> 70%  
A >> 45%  
B >> 25%

**Biltegiako prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.



LEHIAKETA > MUSIKA

## Debagoiendarrek bi sari ekarri zituzten Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketatik

Arrasateko Eneritz Urrutia eta Maialen Arratibel; eta Bergarako Amy Kerkhof izan ziren ibarreko sarituak

**IKER BARANDIARAN > BERGARA**  
Bukatu da aurtengo Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketa; atzo, domeka, egin zuten finala Donostiako Antzoki Zaharrean, eta aretoa goraino bete zuten.

Debagoieneko sei abeslarik esku hartu zuten finalean; eta horietako batzuk, gainera, sariak

eraman zituzten. Bakarleri onenaren saria Oiartzunera joan zen; Irati Odriozolak jaso zuen. Bigarren bakarleri onena, berriz, Amy Kerkhof bergararra izendatu zuten.

Bikoteei dagokienez, Oiartzungo Irati Odriozolak eta Ane Badiolak eskuratu zuten lehengo saria; eta bigarrena, berriz, Arrasateko Eneritz Urrutiak eta Maialen Arratibelek.

Are gehiago, beste sari batzuk ere banatu zituzten ekitaldian zehar; hala nola, abesti propio onena eta beste. Horietan ez ziren debagoiendarrak nabarmendu.

### GUZTIAK ELKARRI LAGUNTZEN

Ordu pasatxo iraun zuten parte-hartzaileen emanaldiek eta horien ostean, sari banaketa egin zuten. Hala ere, sorpresa bat izan zen horien artean. Iazko edizio-ko talde onenaren saria jaso zuen T-Crash agertokira igo zen, ustekabeko ikuskizun bat eginez. Entzuleak barrez lehertu ziren eta oso gustura hartu zuten antolatzaileendako ere sorpresa izan zen ekarpena.

Bestalde, antolatzaileek azpimarratu zuten txapelketa osoan izan den giro ederra eta taldeki-deek eurek elkarri laguntzeko izan duten jarrera.



IRATI AGIRREAZALDEGI

### Agirreazaldegik, txapelketari agurra

Elgetako Ainhoa Agirreazaldegik Bertso Txapelketatik kanpo geratu da azkenean; eta ezingo du hurrengo kanporaketan esku hartu. Tolosan aritu zen zapatuan eta saio polita egin zuen arren, puntuazio txikia jaso zuen. "Lasaitua ere hartu dut; orain disfrutatuko dut eta lagundu behar den lekuan lagundu, zale guztiek bezala", azaldu zuen.



Bergarako Amy Kerkhofek lortu zuen bigarren bakarleri onenaren saria. GOIENKARIA

75 dendatik eta 200 produktutik gora.  
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.

 **MERKATUA.net** Debagoieneko denda

ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK  
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK  
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK  
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK  
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK







sudokua

7		6	9	8		5	
5	8					6	9
		3				7	
6	2	1				4	
	3					8	
9	5	4		6			7
		7			3		4
6	4	5				9	
			4				

bila-bila 7




hitz gezidunak

	Gaztangile	Bizkaiko ibaia	Emakume izena
	Euskarri	Aho legar	Zuberoako herria
	Gaizto		
	Barrundia-ko auzoa		
Lantegi	Nagoenera hurbildu		
Musika tresna	Errenkada		
		Zakurra	
		Lantza	
GOITB-ko saioa			
Lurraren satellite			
		Kasik	
		Iridioa	
Eraikitako zernahi			Bokala
Modua			
		Lasaia, barea	

GOIENKARIA

soluzioak



L	A	Z	A	R	R	A	G	A
V	S	O	L	D	K	H	J	K
T	O	R	R	E	A	U	Z	O
A	S	X	O	O	P	D	E	F
E	T	F	K	T	U	E	R	T
S	T	T	E	S	T	I	L	U
D	X	Z	Z	E	R	T	I	J
M	O	N	T	X	O	N	S	Z
N	O	X	O	N	T	X	O	N
U	O	P	A	L	P	B	D	G

Hieroglifoa: Zubi azpian.

hieroglifoa

Non zegoen Patxi?

zu

hizki salda

Oñatiko bost kaleren izenak.

U	O	P	A	L	P	B	D	G
M	O	N	T	X	O	N	S	Z
D	X	Z	Z	E	R	T	I	J
S	T	T	E	S	T	I	L	U
E	T	F	K	T	U	E	R	T
A	S	X	O	O	P	D	E	F
T	O	R	R	E	A	U	Z	O
A	S	O	L	D	K	H	J	K
L	A	Z	A	R	R	A	G	A

2	3	7	8	4	9	5	1	6
6	4	1	5	3	2	7	9	8
5	8	9	7	6	1	3	2	4
8	9	5	4	2	6	1	3	7
4	1	3	9	7	5	6	8	2
7	6	2	1	8	3	9	4	5
9	2	6	3	5	4	8	7	1
3	5	8	2	1	7	4	6	9
1	7	4	6	9	8	2	5	3

E	R	A	N	A	R	E	A
E	R	A	I	K	I	N	A
I	L	A	R	G	I	A	I
I	L	L	U	N	P	E	A
G	A	I	T	A	O	R	A
T	E	T	O	R	R	I	A
Z	I	T	A	L	U	L	U
M	A	K	U	L	U	L	U
B	G	A	L	P	B	D	G

asteko horoskopoa

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Eta dagoeneko galdu duzu dibertitzeko zenuen gaitasuna. Horrela, zure bizitzaren hainbat aspektu berriro aztertu beharko dituzu, eta, ondorioz, hainbat aldaketa egin.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Bikotekidea dutenek hura gal dezakete. Onar ezazu aldatzea ez dela guztia galtzea eta ikas ezazu aurrerantzean zure bizitzan gertatukoak naturaltasunez zeureganatzen.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Estresaren eta estutasunaren ondorioz arnas hartzeko arazoak izan zenitzake. Astia har ezazu dibertitzeko eta erlaxatzeko, behar duzu-eta.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Amodioari dagokionez, gauzak ez dira hain ondo aterako; ez dakizu zer gura duzun; hortaz, ezer egin aurretik ondo pentsatu.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Behin-behineko poztasuna ekarriko dizute. Baina epe luzera tristura eta nahastea ekarriko dizkizute. Argi ibili, bestela bizitza nahastu egingo dizute erabat.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Ez ibili presaka, osterantzean erorikoa izan dezakezu eta baliteke hezurren bat haustea. Etxebizitza aldatzeko edo oraingoan konponketak egiteko aukera.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Benetako onura ekarriko dizkizuten gauzak egiten hasiko zara. Bidaia bat egingo duzu eta jendea ezagutuko duzu, aberasgarria izango da.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Erronkei aurre egiteko duzun gaitasuna gal zenezake. Ardurei aurre egin, ihes egiteak ondorio negatiboak ekarriko dizkizu epe luzera.

SAGITARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Lagunen aholkuak entzun itzazu, bestela optimismoa eta berotasuna lagun hainbat konpromiso har ditzakezu, eta kalte egin diezaiokete zure osasunari epe luzera.

CAPRICORNIUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Bikotekiderik ez dutenek pertsona bat ezagut dezakete eta harekin harreman serioa hasi. Bestalde, dirua neurritz gastatzen ikas ezazu.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Aldaketak izango dituzu jardunaren, nekezintasunaren bitartez. Ez edan alkohol askorik, urduri jar zaitezke eta astegun buruzuri baten egoera deserosoak sor zenitzake.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Era berean, gastu gutxiago egin beharko dituzu, apetak emanda erosketa ugari egiten duzu eta gero larri-larri ailegatzen zara hil bukaerara.

gazte zerbitzua

BEKAK

> **Estatu Batuak.** Fulbright programa. Estatu Batuetan, 2010-2011 ikasturtean Gizarte zientzietako edo Humanitateetako alorretan masterrak egiteko dirulaguntzak. Epea: abenduaren 14a.

> **Hizkuntzak.** Eusko Jaur-larritza. Alemanian, Frantzia, Erresuma Batuan, Irlandan eta Kanadan egonaldiak eta ikastaroak egiteko 750 plaza. Epea: azaroaren 30a.

LANA

> **Teknikariak.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Foru Aldundian aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko kanpainetan laguntzeko erdi mailako teknikarien lan-poltsa osatzeko aukeraketa-prozesua. Epea: azaroaren 22a.

> **Lanbideren eskaintzak.** Frantses eta italiar irakasleak, haur eta gazteen dinamizatzailea, administratiboa, saltzailea...

EKINTZAK

> **Nola ikusten duzu zure ingurua?** Zure iritzia jakin nahi du Foru Aldundiak. 18-25 urte artean badituzu, har ezazu parte proiektuan. Eztabaida taldea abenduaren 16an batuko da Arrasateko Kulturaren.

LEHIAKETAK

> **Komikiak.** Tolosako Udala. Tolosako Udaleko Berdintasuna eta Tolosaldea Garatzeko Inmigratio departamentuen artean, gazteei zuzendutako komiki lehiaketa antolatu dute. Gizon-emakumeen estereotipo tradizionalak gainditzea du helburu. Epea: abenduaren 30a.

> **Inauteriak.** Donostia Kultura. 2010eko inauterietarako kartel lehiaketa. Epea: azaroaren 18a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:  
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65  
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:  
Kultura etxea • 943 77 91 57  
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:  
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57  
gazteinformazioa@oinati.net

astea GOITBn

Astelehena, 16



> **Jokin Zaitegiren biografiaz 'Goiena Magazinea'-n**  
19:45

Joxe Mari Velez de Mendizabal idazle eta historialariak Jokin Zaitegi arrasatearraren bizimoduaz jardungo du *Magazinea*-n.

- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Sakonduz.
- 15:45 Ikusmira.
- 16:15 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Kalekanto.
- 18:15 Ilunpean.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Harmailatik.
- 23:00 Gipuzkoakultura.
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 17



> **Uxue Alberdi bertsolaria 'Ilunpean'-en**  
22:15

Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria elkarrizketatuko du aste honetan Jon Bereziabar kazetariak *Ilunpean* programan.

- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 On Ein.
- 14:45 Berriak.
- 15:10 Harmailatik.
- 15:50 Ikusten.
- 16:20 Itsasoari begira.
- 16:45 Berriak.
- 17:10 Marrazki bizidunak.
- 17:35 Wazemank.
- 18:15 Gipuzkoakultura.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Ilunpean.
- 23:00 Wazemank.
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:30 Emisio amaiera.

Eguaztena, 18



> **Urdangarin eta Uribe 'Gipuzkoa Kultura'-n**  
22:15

Kirmen Uribe idazleak eta Mikel Urdangarin musikariak prestatu duten Internet kafe ikuskizuna erakutsiko dute.

- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Udazken loreak.
- 14:45 Berriak.
- 15:10 Ilunpean.
- 15:50 Sakonduz.
- 16:20 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:35 Harmailatik.
- 18:15 Ur eta lur.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Gipuzkoa Kultura.
- 23:00 Kalekanto.
- 23:45 Goiena Magazinea.
- 00:45 Emisio amaiera.

Eguena, 19



> **Asier Agirre Aramaioko alkatea zuzenean**  
19:45

Asier Agirre Aramaioko alkatea etorriko da *Alkateak zuzenean* saiora kazetarien eta herritarren galderak erantzutera.

- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Gipuzkoa kultura.
- 15:45 Kalekanto.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 18:00 Sakonduz.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Puntu Puntu.
- 22:45 Erreportajea.
- 23:20 Itsasoari begira
- 23:45 Goiena Magazinea.
- 00:45 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 20



> **'Alex eta Alexis' marrazki bizidunak**  
13:15

*Alex eta Alexis*-en istorio eta abenturak ikusi ahal izango dituzte etxeko txikiak eguerdian, arratsaldean eta iluntzean.

- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 On ein.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ur eta Lur.
- 15:45 Itsasoari begira.
- 16:15 Ikusten.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 18:00 Ilunpean.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Sakonduz.
- 22:45 Udazken loreak.
- 23:15 Kale kanto.
- 23:45 Magazinea
- 00:45 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> **Arrasate Irratia**  
10:00

Arrasateko euskalgintzak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako eta horien jarraipena egingo dute Arrasate Irratiko *Igo autobusera* irratsaioan. Horretarako, Arrasateko euskalgintzako hainbat kide gonbidatuko dituzte. Gaur, astelehena, adibidez, Maitane Muñoz AED-ko teknikaria elkarrizketatuko dute.

**Astelehenetik egubakoitzera**

10:00-12:00 Uda Giroan

Albistegia  
Eguraldien iragarpena (Joxe Landa)  
Astelehenetan Kirolak  
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)  
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin  
Udal Gazte Bulegoa  
Sexologia Zerbitzua  
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...  
Astearen erreposoa (Goienkariarekin)  
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak  
Zozketak (egubakoitzean)  
Zorion agurrak (parte hartzeak: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Uda Giroan  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratu.

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratu.

telealbistek

GOITB > 'ALKATEAK ZUZENEAN'

Internetez jarraitu daiteke 'Alkateak zuzenean' atala, eguneko 'Magazinea'-n

'Livestream' webgunean sartu eta zuzenean entzun daitezke alkatearen adierazpenak, baita galderak egin ere

O.E. > ARRASATE

Internet bidez ere jarraitu ahal da egunetako *Goiena Magazinea*-ren barruan dagoen *Alkateak zuzenean* atala. Horretarako egin behar dena da: [www.livestream.com/goienatv](http://www.livestream.com/goienatv) helbidean sartu. Behin helbide horretan sartuta, zuzenean jarraitu ahal izango da GOITBko kazetariak Debagoieneko dagokion alkateari egiten dioten elkarrizketa.

Ez hori bakarrik, lagunekin txateatu, alkateak esaten dituenaren inguruko iritzia eman eta alkateari berari ere zuzenean galderak egiteko aukera dago. Galdera horiek platoon dauden kazetariak hartuko dituzte eta zuzenean egingo dizkiote alkateari.

Urriaren 22an ekin zioten GOITBn bailarako alkateak elkarrizketatzeari. Arrasate, Elgeta, Bergara eta Oñatiko alkateak pasa dira dagoeneko platotik. Hurrengo Aramaiokoa izango da, Asier Agirre. Horri egingo dioten elkarrizketa ere on-line jarraitu ahal izango da, egunean.

Momentuz, alkateen elkarrizketak bakarrik emititzen ditu Goienak internetez, baina etorkizunean beste programa batzuekin ere berdina egiteko aukera ez dute baztertu.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM

**Asteartetik ostiralera:** 17:30 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)  
**Asteburu eta jai-egunetan:** 12:00(eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.), 18:00 (gazt.)  
**Eboluzioa** (Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu)  
**Biziaren Jatorria** (Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa)  
**Infinity Express** (Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaiak)  
**Kartoizko Suziriaren Jatorria** (Haurrei zuzendutako saioa)  
**Donostiatik zerura begira** (Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz)  
**Itsua izar begiekin** (Ipuin animatu bat, non itsu batek eta tirano batek, unibertsoaren ezagupenera hurbilduko gaituzten)

ASTEBURU ETA JAI-EGUNETAN

Erakustaldiak, Zientzia ikuskizunak, Planetarium Txikia, animazioak, etab.

BESTE ZERBITZU BATZUK

- Doako aparkaleku zabala
- Ingurune aparta
- Haur-parkea
- Lorategi botanikoa
- Gipuzkoako eraikin garrantzi tsuen maketak
- Jatetxe-kafetegia
- Denda
- Kontsignak

Sarrerak egun osorako balio du, alegia, nahi adina aldiz sartu eta ateratzeko aukera ematedu.

**Famili giroan edota lagun artean egun polit bat pasatzeko aukera paregabea!**



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA  
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.mirammon.org](http://www.mirammon.org)

**Ordutegia**  
Astelehenetan itxita.  
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00  
Asteburu eta jai-egunetan: 11:00-19:00

## zorion agurrak



ANTZUOLA

**Aintzane**

**Muruamendiaraz**  
Azaroaren 8an, urtebetetzea. Zorionak lankideen partetik. Ez dadila dantza gel-ditu!



ORMAIZTEGI

**Goiatz Arana**

Azaroaren 9an, urtebetetzea. Zorionak lankideen partetik. Ea mendizaletasuna berreskuratzen duzun! Eta Arnatar gutziak noizko?



OÑATI

**Mireia Aranburu**

Azaroaren 9an, 13 urte. Zorionak, Mireia! Ondo pasatu eguna. Etxekuen partetik.



ARRASATE

**Julen Altube Garcia**


Azaroaren 10ean. Zorionak, xagutxo! Urtetxo bat gurekin! Markel, izeko eta osaban partetik laztan handi-handi bat eta ederto pasatu eguna Bilbo aldien!



BERGARA

**Haizea Arantzabal**

Azaroaren 11n, 3 urte. Zuri zorionak, on-onak, Larruneko sorgintxo! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo mordo bat etxekuen partetik, bereziki Auritz.



ARRASATE

**Bittor Iñarra Bastardo**

Azaroaren 11n, 42 urte. Zorionak, osaba. Belarri tira handi bat emateko gogoa daukau. Zer ordutan joango gare txokolatea jatera? Je,je,je. Muxu asko, bereziki Gorka eta Aratzen partetik.



ARRASATE

**Amalur Arizabaleta Rodriguez**

Gure neskatila politenak azaroaren 12an, 6 urte. Bihotz-bihotzez opa dizugu urte asko bete itzazula, senide artean. Lztan handia, denon partetik.



ARRASATE

**Aimar Mijangos Barandiaran**

Azaroaren 13an, 8 urte. Zorionak eta patxo handia Maddi eta etxeko guztion partetik.



OÑATI

**Leire Derteano**

Azaroaren 14an, 28 urte. Zorionak, guapixima! Ondo ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat zure kuadrilian partetik!



BERGARA

**Maider Andrinua**

Azaroaren 14an, 9 urte. Zorionak, baliente! Patxo handi bat etxeko guztion partetik eta ondo pasatu eguna.



ARRASATE

**Beatriz Belategi Bidaburu**

Azaroaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, neska! Gaurko poteak zure kontura, eh? Ondo pasatu zure egunien eta muxu bat zure familiaren partetik



BERGARA

**Oier Aranes**

Azaroaren 15an, 4 urte. Zorionak! Ondo pasatu eguna eta patxo pila bat etxeko-en partetik!



ARRASATE

**Ariane Alcaide**

Azaroaren 15ean, 2 urte. Arizmendi, Arimazubiko lagun eta Argitxoren partetik, Mila kilo zorion!



BERGARA

**Ane Mujika Agirre**

Azaroaren 15ean, 4 urte. Zorionak, Artekaleko printzesa! Etxeko partetik lau belarri tirakada eta patxito pila-pila!



BERGARA

**Maren Leston Ezenarro**

Azaroaren 15ean, 4 urte. Zorionak etxeko-en eta bereziki Oihaneren partetik.



ARRASATE

**Txomin Belategi Bidaburu**

Azaroaren 15an. Zorionak, aiatxo. Patxo hadi bat etxeko-en partetik, eta ondo pasatu zure egunien, jujitsero!



ARRASATE

**Unai Ibarra**

Azaroaren 15ean, 11 urte. Zure lagun eta familiakoen partetik, zorionak eta patxo handia! Laster Calderon bezain jokalarari ona!



BERGARA

**Manex Balentziaga Galfarsoro**

Azaroaren 16an, 3 urte. Zorionak, potxolo! Patxo handi-handi bat ama, aita, Sara, amama, aitaia, tia Arro, tio Diego, Lur, Mitxela eta Kalistaren partetik. Pastel handia egin, eh?



OÑATI

**Xabier Iñurritegi eta Kizkitza Aranzabal**

Kizkitzak azaroaren 14an, 27 urte eta Xabik 16an, 34. Zorionak, bikote. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunak. Patxo bana familia danan partetik.



ARRASATE

**Julen Parra Matilla**

Azaroaren 16an, 3 urte. Zorionak, txapel-dun! Hiru, hiru, hiru, kolkua bete diru. Oso ondo pasatu eguna, patxo pila pila patata eta morzilla, Eneko, aiatxo, amatxo, etxeko-en eta laguntxo guztien partetik.



BERGARA

**Irati Albusua Moreno**

Azaroaren 16an, 7 urte. Zorionak! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat Oier eta Mararen partetik!



OÑATI

**Ekain Garparsoro Galdos**


Azaroaren 16an, 4 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean Irati, aiatxo eta amatxoren partetik. Dinosaurioren patxo handi bat.



BERGARA

**Andoni Gabilondo Iturriaga**

Azaroaren 16an, 5 urte. Zorionak etxeko-en partetik!



OÑATI

**Diego Moyua**


Azaroaren 17an, urtebetetzea. Zorionak, my darling! Onena zara! Arro, Lur, Feli, Jon, Sara eta Manexen partetik, maite zaitugu! Asteartian txanpainarekin brindauku!



ARRASATE

**Malen Altube Sedano**

Azaroaren 17an, 5 urte. Zorionak, Malen. Egun zoragarria pasa dezazula. Muxu handi bat aita, ama eta Alaitzen partetik.



ARETXABAETA

**Unax Larrinaga Urzelai**

Azaroaren 18an, 4 urte. Lau urtetxo, txapel-dun! Zorionak etxeko-en partetik.



OÑATI

**Xabier Anduaga Txinturreta**

Azaroaren 18an, 6 urte. Zorionak familia-koen partetik.



ESKORIATZA

**Ane Elorza Cobos**


Azaroaren 19an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna, patxo handi-handi bat familiakoen partetik eta bereziki Mikelen partetik.



ARRASATE

**Antonio Fernandez Gago**

Azaroaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, aiteite! Patxo handi bat zure iloben partetik: Ibai, Irati eta Ane. Eta indarra hartu etorten danerako.



OÑATI

**Gorka Alzelai**

Azaroaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, Altxelita! Belarritik tirakada pila zure lagun partetik! Zapatuan bazkaixa zure kontu! Ondo pasatu! Aupa, Xagu!



BERGARA

**Andoni Goiti**

Azaroaren 22an urtebetetzea. Zorionak ipotx marmartien partetik. Egin irrifarre bat! ez dira hainbeste urte.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goiencariaren bidez!  
Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

## Internet bidez

Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.  
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

## e-postaz

Mezu bat bidali [zorionagurrak@goiena.com](mailto:zorionagurrak@goiena.com) helbidera.  
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkari batara.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.  
Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean aterako ditugu.

asteburuko albuma



**Txirindularien arteko afaria Elorregin.** Urtero moduan eta txirindularitza denboraldia amaitu dela aprobetxatuta, lagun koadrila batu zen egubakoitzean Elorregiko Alkartasuna elkartearen. Besteak beste, Markel Irizar, Patxi Vila, Juanma Garate eta Mikel Astarloza izan ziren afarian. Nola ez, txirindularitza izan zuten hizpide eta giro alai izan zen nagusi.



**Rufino Arantzetak 100 urte.** Egun berezia izan zen atzokoa Rufino Arantzetarentzat (Elgeta, 1909). Elgetan jaioa, 30 urterekin Oñatira joan zen lanera eta ordutik bertan bizi da. Omenaldia egin zioten atzo Larrain Gain elkartearen eta Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatearen eskutik oroigarria jaso zuen Arantzetak. Bazkari ederra egin zuten eta eguna ederto pasa zuten familia giroan; ez zen dantzarik, musikarik eta bertsorik falta izan. Familiaren partetik, "zorionak eta eskerririk asko urte guzti hauetan emandako denagatik".

URTEURRENA

**Juan Emilio Barrena Gorostiza**

*Betirako gure bizitzan,  
betirako gure bihotzean.  
Maite zaitugu.*



Zure emazte eta alaba: Olatz eta Ione.  
Arrasaten, 2009ko azaroaren 16an.

**ESKELAK**

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150 euro.**

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).**



jaiotakoak



**Beñat Oleaga Mugarza**  
Oñati > 3,070 kilo. Azaroaren 8an. Gurasoak: Irantzu (Oñati) eta Imanol (Oñati). Argazkian, Beñat jaioberria, amarekin.



**Mikel Kernstock Urmeneta**  
Oñati > 3,320 kilo. Gurasoak: Nerea (Oñati) eta Juan Ignacio (Oñati). Argazkian, Mikel jaioberria, aitaren besoetan.



**Telmo Azkarate Larrea**  
Bergara > 3,160 kilo. Azaroaren 9an. Gurasoak: Mireia (Bergara) eta Alex (Bergara). Argazkian, Telmo jaioberria, sehaskan.



**Maria Rodriguez Lz. de Abetxuko**  
Bergara > 2,900 kilo. Azaroaren 10ean. Gurasoak: Ioana (Bergara) eta David (Bergara). Argazkian, Maria jaioberria, sehaskan lo.



**Keltse Malbadi Ugarte**  
Oñati > 2,360 kilo. Azaroaren 11n. Gurasoak: Ainhoa (Oñati) eta Ismael (Oñati). Argazkian, Keltse jaioberria, sehaskan lo.



**Kemen Malbadi Ugarte**  
Oñati > 2,620 kilo. Azaroaren 11n. Gurasoak: Ainhoa (Oñati) eta Ismael (Oñati). Argazkian, Kemen jaioberria, sehaskan lo.



**Hodei Dominguez Gomez**  
Arrasate > 3,170 kilo. Azaroaren 4an. Gurasoak: Ainara (Arrasate) eta Beinat (Arrasate). Argazkian, Hodei jaioberria, sehaskan lo.

**BABESLEA**

**IKUSI MAKUSI**

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Uxue Alberdi > Idazlea, kazetaria eta bertsolaria

# "Bidaiatzeko gero eta premia txikiagoa dut"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Bertsolari - ez bertsozale - berantiarra izan arren, asteburuan ere marka ona egin du Alberdik Txapelketa Nagusian. Oholta gainean bakarrik ez, literaturan ere emaitza politak ditu elgoibartarrak. Aulki jokoa da haren azkena, amonatalde baten bizitzetan oinarritutako eleberrri ederra. Lezio asko ikasi omen du haiek inspirazio eta irakasle hartuta.**

## Inspirazioa kanpoan bilatu beharra dago?

Bidaiatzea asko gustatu arren gero eta gutxiago behar dudala uste dut. Iruditzen zait ausardia ariketa bat dela topatu nahi duzuna kanpoan topatu beharrean, zentzu guztietan, hemen bilatzea. Zertarako egon bizitza guztian zuk nahi ez duzuna egiten, nahi ez duzun moduan, eta bat-batean urte sabatikoa hartu edo urte osoa nahi ez duzun mekanika baten eman eta uda iritsi, motxila hartu eta bidaiatu zuri gustatuko litzaizukeen modura. Nire ideletatik ahalik eta gertuen bizitza gustatuko litzaizuke. Oso zaila da eta dirua behar dugu eta

jende guztia dago lanean, erritmo bat dago, klima bat... Gustatuko litzaizuke hemen topatzea inspirazioa, bai idazteko zein bizitzeko eta azken urteotan oso oso gustura bizi naiz. Orain arte ihes egin dut, kanpora eta han nire lekua egin baina badira jada urte batzuk hemen nire inguruan lekua egin dudala, nire zentroan.

## Idealak aipatu dituzu. Berba potoloa?

Dirua ez izatea nire kezka nagusia da ideal bat eta horretara

TEST-A

**Jaioterrria:** Elgoibar. **Bizilekua:** Getaria. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Kazetaritza Lizentziaduna. **Liburu bat gomendatu:** Irati Jimenezen *Odola*, sekula ere ez nuen esango banpiro istorio batekin malkotan bukatuko nuenik. **Musika:** Doctor Deseo oso gustuko dut. **Ama liburudendan eta aita euskarairakasle:** Txikitatik idatzi izan dut eta beti egon naiz irakurtzen. Aitak ipuinak irakurtzen zizkigun beti oheratzerakoan.

rako neurriak hartzea, hipoteka baten sartu barik ahal bada ze gure burua itotzen dugu. *Hippysmo totalaz* ez naiz hitz egiten ari baina ahal den bitartean nahiko nuke ahalik eta gastu gutxienekin bizitza, horrek askatasuna ematen duelako. Baita ere gustatuko litzaizuke kulturarekin lotuta bizitzea eta herrian txertatuta. Ez elite kulturaren - ez zait interesatzen - herriko kulturaren baizik. Laguntasunari garrantzia handia ematen diot. Sortzeko idazteko... denbora izatea.

## Bertsolaritzak ez du apur bat elitismorantz jo?

Elitea inon sanao bada, sanoena bertsolaritzan da. Elitea Egaña bada, Egañarekin edozein gaiz hitz egin dezakezu, berarekin aurrez aurre bertso-afarian egon eta zure bikoteari buruz hitz egin dezakezu. Bertsolaria herrietan, auzoetan, jendearekin egiten du lan eta oso gertukoa da. Iritzi emaile mailan normala da ze oso informatuta egoten dira eta hizkuntza menderatzen dute. Bertsozale elkartearen urtetako lanaren emaitza ere bada.



ELKARRIZKETA Hizlari gertukoa eta saiatur da Alberdi.

JON BEREZIBAR

## ai, ene!



## Pizgailua ez galtzeko

Bukatu da pizgailua galtzearen garaia. Poltsikoetan eta poltsetan pizgailua bilatzeaz aspertuta? Orain mugikorra besterik ez duzu bilatu beharko tabakoa piztu ahal izateko!

<http://www.raroycurioso.com>

## biharamuna

Iñigo Biain


## Itsas lapurren ipuin tristea

railaren 4a. Alakrana itsasontzia Indiar Ozeanoan sortu den Atalanta segurtasun gunetik 800 milia baino gehiago aldendu da. Somaliar "pirata" batzuk hurbildu zaizkio ontzi txiki batean, baina arrantzaleek hanka egitea lortu dute. Urriaren 2a. Alakrana berriro aldendu da segurtasun eremutik, eta oraingoan bai, somaliar "piratak" Bermeoko ontziaren jabe egin dira. Piraten ipuin bat dirudien hau munduko makroekonomian oinarritzen den istorio tristea da, non itsaslapurren arteko gatazkak eta enpresari zeken askoren eskrupulorik gabeko diruzalekeria, txirotasun erra-

dikalenarekin nahasten diren. Izan ere, zergatik doaz Bermeoko ontziak Afrikan kostalde gehien duen herrialdera arrantzan egitera? Beraien berezko arrantza guneak zeharo agortu dituztelako agian? Kontuak kontu, lapur ugari ageri zaigu ipuin honetan, batzuk itsasoari lapurtzen diotenak, beste batzuk arrantzaleei lapurtzen dietenak, eta beste asko komunikabideetan agertu ere egiten ez direnak. Ipuinak ipuin, inork galdetu al dio hegaluzeren bati zer pentsatzen duen guzti honetaz? Ez noski, Indiako Ozeanoko hegaluzeak ez baitira euskaraz mintzatzen..



## eguraldia



MAXIMOA

+19

MINIMOA

+12

Hegoaldeko haizea ahuldu egingo da. Zerua hodeitsu mantenduko da eta euri apur bat egingo du. Tenperatura, aldaketarik ez.

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE hutsunea **KODEA**  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP hutsunea **KODEA**  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL hutsunea **KODEA**  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ hutsunea **KODEA**

**5767** zembakira  
SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

**Himnoak**  
Eibar | **EIBAR**  
Athletic Club | **BILBAO**  
Osasuna | **OSASUNA**  
Reala | **REAL**  
Real Union | **UNION**

**Folk**  
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**  
Bai euskarari (Pantxoa) | **BAI**  
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**  
Bizkaia (Maite Benito Lerbundi) | **BIZKAIA**  
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**  
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorn) | **EUSKAL**  
Euskaldun berriaren balada (Oskorn) | **EUSKALDUN**  
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**  
Furra Furra (Oskorn) | **FURRA**  
Galziara noa (Oskorn) | **GALZIARA**  
Germikako Arbolak (Gontzal Mendibil) | **GERMIKAT**  
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**

**SOINUAK** ERREALAK (2 SMS)  
Abestiaren izena | **KODEA**

1.2.3.4...Real! | **REAL**  
Alboka | **ALBOKA**  
Athletic Iuep!! | **IEUP**  
Buztan bertsoa | **BERTSO**  
Hartu...Aitaran ta semea... | **AITAREN**  
Hartu...Ansar | **ANSAR**  
Hartu...Argentinarra | **ARGEN**  
Hartu...Mexikarra | **MEXIKO**  
Hartu...Miami! | **MIAMOL**  
Independentzia! | **INDEPEN**  
Irrintzia | **IRRINTZI**  
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**  
Milazu! (pilota) | **MILAZU**  
Suprinua | **SUPRINU**  
Tobera | **TOBERA**  
Txalaparta | **TXALA**  
Txanbela | **TXANBERA**  
Txoootx | **TXOTX**

**LOGOAK** (SMS 1)  
**KODEA**

**LAU1** **MUSKARIA** **AIZKORAK**  
**NUKLEAR** **KALABERA1** **EGUZKILORE3**  
**SORGIN** **POPATIK** **KAPUTX**

**OHARRAK**  
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragarri](http://www.smsoinu.com/bateragarri)  
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatutako, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Altea ematea oinarri da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alda ematea oinarri da.  
\* Euskalnet: deitu 900 84 02 00 telefonora. / \* Vodafone: deitu 123+ / \* Movistar: deitu 609+.  
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.  
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kalteratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.

**WEBGUNEAN** [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)